

eman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

**Facultad de Educación y Deporte
Heziketa eta Kirol Fakultatea**

Departamento de Educación Física y Deportiva
Gorputz eta Kirol Hezkuntza Saila

ENTRENAMENDU-KARGA ABSOLUTUAREN ETA ERLATIBOAREN ANALISIA FUTBOLEAN

DOKTOREGO-TESIAREN EGILEA

UNAI ZURUTUZA MARTIN

DOKTOREGO-TESIAREN ZUZENDARIA

JULEN CASTELLANO PAULIS

Vitoria-Gasteiz 2020

“AMA, hiru hizkik osatzen duten hitz labur eta erraldoia.

Guztiok erraietan daramagun hitza.

Idazten diren hitz guztiak ez dira nahiko amari eskerrak emateko.

Inoiz ezingo zaio ama bati nahikoa eskertu norberagatik egin duena.”

Iñaki Etxezarraga Maiztegi ‘Etxe’

AMA,

ESKERRIK ASKO DENAGATIK

“The Best way to predict the future is to create it”

Peter Drucker

“Things are not to be told, but done, because they speak for themselves while being done”

Woody Allen

“Without data you're just another person with an opinion”

W. Edwards Deming

“Don't let the noise of others' opinions drown out your own inner voice”

Steve Jobs

ESKER ONAK

Doktorego-tesia ikasle batek ikerketa bati buruz egindako ikerlan idatzia da, era indibidualean gauzatu behar den ezagutza akademikoko gai zehatz baten sakontze bertikala. Doktorego-tesi bat burutzea ez da lan erraza, esfortzu eta sakrifizio ugari egin behar baitira. Lan-prozesu honetan, modu batean edo bestean pertsona askok hartu dute parte, baina lan hori ez zatekeen posible izango nire zuzendariaren sostengua izan ez banu.

Horregatik, lehenik eta behin, nire bidelagunari eman nahi nizkioke eskerrak, nire zuzendari izan den Julen Castellanori. Eskerrak, buruhauste izugarriak ematen zizkidaten hainbat gauza ikerlanaren indargune bihurtzeko egindako proposamenagatik, baita zure ezagutzak eta esperientzia transmititzeagatik ere, nire prestakuntzarako aberasgarriak izan direlako.

Eskertzeko da, halaber, nire egoerara egokitzeko erakutsi duzun inplikazio eta malgutasun ordainezina, beti ez delako erraza izan. Ederto dakit zer babes handia eman didazun, hala maila profesionalean nola pertsonalean, eta horrek berebiziko garrantzia izan du niretzat.

Bigarren bidelagun ukaezinak Beasain Kirol Elkartearen osatzen duten kideak izan dira: xebolo, claver, txistu, aiert, txemita, diez, aranda, richard, burux, jony, iturbe, larri, pablo, kinti, enri, javi, iñigo, kepa, luisito, jakes, batxu, txesta, mikel, vero, iosu, urko, izaro, dino, urtzi, mendi, ixku, asen, rafa, beñat, jonma, danel, jonzu, tximen, orue, aitor, etxebe, asier, olaizola, valdor, artola, iker, urze, eta pipo.

Azkenik, eskerrik asko nire familiari, kuadrillari, pisukideei eta lagunei, beti hor egoteagatik, eta nahiz eta bakoitzak bere bidea hartu, elkarrekin gauden momentuak bereziak izaten jarraitzen dutelako. Zuek gabe, zuen ideiak gabe, zuen denbora gabe, doktorego-tesi hau ez zatekeen posible izango. Ni neu ere ez nintzateke naizena izango. Horregatik, zuotako bakoitzari, MILA ESKER BIHOTZ-BIHOTZEZ, NAGOEN LEKURAINO IRISTEN LAGUNDU IZANAGATIK.

DEKLARAZIOA

Nik, Unai Zurutuza Martinek, ziurtatzen dut doktorego-tesi honen egilea naizela, eta ikerketa-prozesu guztian parte hartu dudala, lanaren diseinutik hasi eta azken dokumentu hau idazteraino. Horretarako, ezinbestekoa izan da lana diseinatzea, bibliografia aztertzea, entrenamendu eta partidetan datuak jasotzea, datu horiek analizatzea, emaitzak interpretatzea eta eztabaida sakon bat planteatzea. Laburbilduz, artikulua aldizkarietan publikatzeko jarraitu behar diren baldintzak betetzea. Lan hau ezinezkoa litzateke Julen Castellanoren gidaritza gabe, bera baita tesi honen tutorea eta zuzendaria. Lagunduta sentitu naiz une oro, ibilbide hau hasi zenetik amaitu den momentura arte.

Bestalde, aipatu, Heziketa eta Kirol Fakultateak eskainitako zerbitzuak erabili ditugula datuak biltzeko fasean, pultsometro eta GPS gailuez baliatuz. Horrez gain, ikerketa hauek egiteko orduan ez dut inolako finantziatorik eskatu edo jaso. Ikerketa hauek burutzeko orduan ez da inongo interesen gatazkarik izan.

IRAKURKETARAKO AHOLKUAK

Doktorego-tesia azalpen dokumentu bat da, egileak gai zehatz baten inguruan duen iritzia edo ikuspuntua azaltzen duena. Doktorego-tesi hau hainbat artikulutan argitaratutako edukiaren eta informazioaren bilduma da. Lanak, orotara, hamabi atal ditu.

Lehenengo atalean —hau da, sarreran—, tesiaren aurkezpena eta gaiaren zergatia azalduko dira. Edukien ildoari jarraitzeko, atal horretatik hasi beharko du irakurleak. Futbol klub bateko talde teknikoaren helburu nagusia errendimendu kolektiboa optimizatzea da, maila edozein dela ere. Izan ere, proiektu bera partekatzea bideratutako jokalariek desberdinen (iragan partikularra, orainaldi propioa eta etorkizun ezezaguna dituztenak) helburua hau da: ahalik eta mailarik onenean lehiatzea. Horretarako, ekintza-plan bat ezarri behar da, eta ekintza-plan horretan etorkizuneko gertaerak modu sistematikoan eta arrazionalen aurreikusi behar dira, kontuan hartuta uneko testuingurua, lehiaketaren eskaerak eta, jakina, jokalarien profila. Azken finean, talde teknikoak futbol-talde horrek eskatzen duen sistema konplexuko elementu guztiak OPTIMIZATU behar ditu.

Bigarren atalean, marko teorikoaren testuingurua azalduko da, eta barne- eta kanpo-kargaren kontrolean oinarrituz futbol-partida eta -entrenamenduen monitorizazioa aztertuko da, eta baita nekearen balorazioa ere. Futbol-partida eta entrenamenduen eskaera fisiko-fisiologikoei buruzko ikerketa zientifikoetan oinarrituko da. Hirugarren eta laugarren atalean, ikerketaren helburuak eta erantzunak azalduko dira. Hipotesi horiek argitaratutako hiru ikerketetan aurkezten dira. Doktorego-tesi honen ardatza jokalarien asteko entrenamendu-karga (TL) balio absolutu eta erlatiboetan lehiaketan jasandako kargarekin konparatzea eta gero, horrek nekearekin duen erlazioa aztertzea da. Horregatik, lehenengo artikulua, “Absolute and relative training load and its relation to fatigue in football” titulupean, futbolarien TLaren barneko eta kanpoko aldagaien arteko erlazioaz mintzo da. Artikulu hori lehiaketaren kargaren inguruan, asteko mikroziklotan termino erlatiboaz hitz egin duen lehenengo azterlan izan zen, eta esfortzu horretarako jokalariek metatutako nekea hartu zen kontuan. Prestatzaile fisiko ororen helburua da entrenamendu-saioren bitartez futbolarien errendimendua hobetzea. Horregatik, entrenamenduetako zereginek berebiziko garrantzia hartu dute jokalarien errendimendu fisikoa optimizatzekeo prozesuan.

Bigarren eta hirugarren artikuluetan entrenamenduetako zereginak eta partidek zer-nolako karga duten aztertu zen. Horretarako —hau da, entrenamenduetako ariketen eragina aztertze—, garrantzitsua da bigarren artikulua: “Selecting training-load measures to explain variability in football training games”. Azterlan horretan, osagai nagusien azterketaren (PCA) bidez barneko eta kanpoko intentsitate-aldagaien arteko erlazioen egitura ikertu, eta joko murriztuen zereginen artean nola aldatzen diren zehaztu nahi da. Ildo beretik jarraitzen du hirugarren artikulua, “Comparación de la respuesta física, en términos absolutos y relativos a la competición, de diferentes demarcaciones en tareas jugadas de fútbol”. Kasu honetan, ordea, entrenamenduetako zereginetan futbolarien demarkazio bakoitzerako emandako erantzun fisikoak aztertzen dira, betiere lehiaketaren karga absolutuaren eta erlatiboaren analisisa kontuan hartuta.

Bosgarren atalean, doktorego-tesi honetan erabilitako baliabide metodologikoen inguruan hitz egingo da. Segidan —seigarren eta zazpigarren ataletan—, artikuluen emaitzen eta horien gaineko eztabaiden inguruan hitz egingo da, eta, zortzigarren atalean, doktorego-tesi honen erreferentzia bibliografikoak aurkeztuko dira. Bederatzigarren atalean, berriz, doktorego-tesi honen ondorio orokorrak aurkeztuko dira. Gainera, hamargarren, hamaikagarren eta hamabigarren ataletan, doktorego-tesi honen aplikazio praktikoak, mugak eta etorkizuneko ildoak aurkeztuko dira, hurrenez hurren.

Azkenik, hizkuntzari buruzko aipamen bat: tesia, funtsean, euskaraz egin da, baina tesian biltzen diren hainbat artikulua nazioartekoak izanik, eranskinetan —doktorego-tesi honen amaieran— bi artikulua ingelesez eta beste bat gaztelaniaz idatziak daude. Testuan aurkituko dituzuen artikuluen formatua bateratua izan da. Irakurketa errazteko asmoarekin, laburduren esanahiak beti eskura izango dira orrialde markatzailean.

LABURDURAK

ACC = azelerazioa

BB = batez bestekoa

BM = bihotz-maiztasuna

BMmax = bihotz-maiztasun maximoa

CM = zentimetro

CMJ = kontramugimendudun jauziaren testa edo countermovement jump test

CMJmax = kontramugimendudun jauzien testean jauzi maximoaren balioa

CMJpost = lehiaketaren ostean asteko lehenengo entrenamenduan egindako kontramugimendudun jauzien testa

CMJpre = lehiaketaren aurretik egindako kontramugimendudun jauzien testa

Dacc > 2min = distantzia totalean egindako 2 m/seg^{-2} gorako azelerazioa

DC = atzelaria

Ddec < -2min = distantzia totalean egindako -2 m/seg^{-2} beherako dezelerazioa

DEC = dezelerazioa

DEL = aurrelaria

DL = hegaleko atzelaria

DT = distantzia totala

DTmin = distantzia totala minutuko eta distantzia totala termino absolutuetan

D < %60min = abiadura maximoaren % 60tik behera egindako distantzia totala

D > %60min = abiadura maximoaren % 60-80 tartean egindako distantzia totala

D > %80min =abiadura maximoaren % 80tik gora egindako distantzia totala

ED = edwards

EDWmin = edwards unitate arbitrarioa minutuko

eTL = kanpoko entrenamendu-karga

FATabs = neke muskular absolutua

FATrel = neke muskular erlatiboa

GPS = Kokapen Sistema Globala edo Global Positioning System

Hz = hertz

iTL = barneko entrenamendu-karga

JRL = joko murriztu handiak

JRM = joko murriztu ertainak

JRP = joko murriztu txikiak

LSG = joko murriztu handiak

MC = erdilaria

ML = hegaleko erdilaria

Mmin = minutuko egindako distantzia

MSG = joko murriztu ertainak

PC = osagai nagusiak

PCA = Osagai Nagusien Azterketa edo Principal Component Analysis

PC1 = lehenengo osagai nagusia

PC2 = bigarren osagai nagusia

PC3 = hirugarren osagai nagusia

PE = entrenamendu-partida

PL = jokalariaren karga edo player load

PLmin = jokalariaren karga minutuko eta jokalariaren karga termino absolutuetan

PL2D = jokalariaren karga bi dimentsiotan neurtua

PM = potentzia metabolikoa edo metapolic power

RPE = Esfortzuaren Pertzepzio Subjektiboa edo Rating of Perceived Exertion

RPEres = saioaren iraupenaren eta arnas aparatuan hautemandako esfortzuaren erantzunaren arteko biderketan lorturiko balioa

RPEmus = saioaren iraupenaren eta muskuluan hautemandako esfortzuaren erantzunaren arteko biderketan lorturiko balioa

SG = entrenamendu-partida

SPSS = Statistical Package for the Social Sciences

sRPE = RPE saioko

sRPEres = arnas aparatuan hautemandako balioa RPE saioko

sRPEmus = muskuluan hautemandako balioa RPE saioko

SSG = joko murriztu txikiak

TD = distantzia totala

TDA > 2 = distantzia totalan egindako 2 m/seg⁻² gorako azelerazioa

TDD < - 2 = distantzia totalan egindako -2 m/seg⁻² beherako dezelerazioa

TD80 = abiadura maximoaren % 80tik gora egindako distantzia totala

TL = entrenamendu-karga edo training load

TQR = Errekuperazioaren Indize-Maila edo Total Quality Recovery

TQRpost = asteko lehenengo entrenamenduan erantzundako galdetegiaren aldagaia

TQRpre = lehiaketa aurreko asteko azkeneko entrenamenduan erantzundako galdetegiaren aldagaia

TQRcomp = lehiaketan erantzundako galdetegiaren aldagaia

T >%80 HRmin = bihotz-maiztasun maximoaren % 80 baino gorago igarotako denbora

UA = unitate arbitrarioak

UPV/EHU = University of the Basque Country / Euskal Herriko Unibertsitatea

Vmax = abiadura maximoa

VO_{2max} = oxigeno-kontsumo maximoa

% = portzentajea

%DT = distantzia totala termino erlatiboetan

%PL = jokalarien karga termino erlatiboetan

%50-80 HRmax = bihotz-maiztasun maximoaren % 50-80 bitartean igarotako denbora

%80-90 HRmax = bihotz-maiztasun maximoaren % 80-90 bitartean igarotako denbora

>%90 HRmax = bihotz-maiztasun maximoaren % 90 baino gorago igarotako denbora

±SD = desbideratze estandarra

AURKIBIDEA



AURKIBIDEA

1. Sarrera	27
1.1. Entrenamendu-kargaren eta nekearen monitorizazioa	28
1.2. Entrenamendu-karga eta honek nekearekin duen erlazioa	30
2. Marko Teorikoa	35
2.1. Entrenamendu-kargaren monitorizazioa futbolean	35
2.1.1. Kanpo-kargaren monitorizazioa	35
2.1.1.1. Aztertu beharreko aldagaien sailkapena	36
2.1.1.2. I. Maila: Abiadura-tarte desberdinetara egindako distantziak	37
2.1.1.3. II. Maila: Abiadura-aldaketa (azelerazioa)	38
2.1.1.4. III. Maila: Mugimendu inertziala	39
2.1.1.5. IV. Maila: Dimentsio metabolikoa	41
2.1.2. Barne-kargaren monitorizazioa	42
2.1.2.1. Bihotz-maiztasuna	42
2.1.2.2. Esfortzuaren Pertzepzio Subjektiboa (RPE)	44
2.2. Nekearen monitorizazioa futbolean	46
2.2.1. Errekuperazioaren Indize-Maila (TQR)	46
2.2.1. Kontramugimendudun jauziaren testa (CMJ)	47
3. Helburuak	51
4. Hipotesiak	55
5. Baliabide Metodologikoak	59
5.1. Diseinua	59
5.2. Parte-hartzaileak	61
5.3. Aldagaiak	61
5.4. Prozedura	64

5.4.1. Pultsometro eta GPS gailuak	64
5.4.2. Neke neuromuskularra	65
5.4.3. Esfortzuaren pertzepzio subjektiboa	66
5.4.4. Neke subjektiboa.....	66
5.4.5. Materialak eta Protokoloak.....	66
5.5. Analisi Estatistikoa.....	68
6. Emaitzak	73
6.1. Lehenengo Ikerketa	73
6.2. Bigarren Ikerketa.....	75
6.3. Hirugarren Ikerketa	79
7. Eztabaida	87
7.1. Lehenengo Ikerketa	87
7.2. Bigarren Ikerketa.....	88
7.3. Hirugarren Ikerketa	90
8. Erreferentziak	95
9. Ondorioak.....	119
10. Aplikazio Praktikoak.....	123
11. Mugak	127
12. Etorkizuneko Ildoak	131
Eranskinak.....	135
1. Lehenengo Artikulua.....	135
2. Bigarren Artikulua	157
3. Hirugarren Artikulua.....	177

1. SARRERA



1. SARRERA

Futbola izaera intermitentedun talde-kirola da (Di Salvo, Baron, Tschan, Calderón Montero, Bachl, & Pigozzi, 2007; Di Salvo, Gregson, Atkinson, Tordoff, & Drust, 2009; Ziogas, Patras, Stergiou, & Georgoulis, 2011), eta intentsitate baxuko esfortzuak intentsitate altuko esfortzuekin tartekatzen dira (Bangsbo, Mohr, & Krstrup, 2006a; Orendurff, et al., 2010; Svensson & Drust, 2005). Lehiaketak kirol honetan iraupen eta intentsitate ezberdinetako jarduera-aldiak uztartzen ditu, errekupeazio-aldiek eteten dituztenak (Arnason et al., 2004; Drust, Atkinson, & Reilly, 2007). Futbolean, partida batek duen iraupena kontuan hartuz, gailentzen den metabolismoa aerobikoa da (Bangsbo, Mohr, Poulsen, Perez-Gomez, & Krstrup, 2006b; Hoff & Helgerud, 2004), baina akzio erabakigarrienak —hau da, azelerazioak, dezelerazioak, norabide aldaketak eta jauziak—, metabolismo anaerobikoaren bidez gauzatzen dira (Hoff & Helgerud, 2004; Stølen, Chamari, Castagna, & Wisløff, 2005). Horregatik, futbol-jokalariek oinarri kondizional egokia behar dute (Brink, Nederhof, Visscher, Schmikli, & Lemmink, 2010), jokoak eskatzen dituen ekintza guztiak ahalik eta eraginkortasun handienarekin egiteko (Iaia, Rampinini, & Bangsbo, 2009).

Kirolaren eskari intermitenteak eta metabolismo aerobiko nahiz anaerobikoa direla medio, futbol-munduan ohikoa izan da jokalariei lehiaketan eta entrenamendu-saioetan ezarritako eskaera fisiko-fisiologikoak aztertzea (Bradley, Di Mascio, Peart, & Olsen, 2010; Dwyer & Gabbett, 2012; Wrigley, Drust, Stratton, Scott, & Gregson, 2012; Malone, Di Michele, Morgans, Burgess, Morton, & Drust, 2015a; Anderson et al., 2016; Los Arcos, Mendez-Villanueva, & Martínez-Santos, 2017; Barrett, McLaren, Spears, Ward, & Weston, 2018). Gainera, eliteko kirolak izan duen bilakaeraren ondorioz, gaur egun lehiaketan egutegia erabat saturatuta dago, zazpi eguneko epean lehiaketa-partida bat edo hiru joka daitezkelarik (Dupont et al., 2010). Hortaz, jokalariek jasaten dituzten TLak gero eta handiagoak dira, eta gainera, euren atsedendialdiak murrizten dituzte. TLak kirolariak jasaten duen estresari edo estimulari egiten dio erreferentzia. Zenbait autorek (Bangsbo, 1997; Buchheit, Horobeanu, Méndez-Villanueva, Simpson, & Bourdon, 2011; Rebelo et al., 2012; Wrigley et al., 2012) azpimarratzen dute jokalariek denboraldi lehiakorrean zehar jasaten duten karga honela banatu daitekeela: % 75-80TL eta % 20-25 lehiaketa-karga. TL horiei behar bezala erantzuteko jokalariek 10-11 hilabetez sasoian egon behar dute (Silva et al., 2011).

Honenbestez, entrenamenduaren eta lehiaketaren eskaera fisiko-fisiologiko handi horiek direla eta, beharrezkoa da futbol-talde bateko jokalarien errendimendua optimizatzeko prestatzaile fisikoek edo zientzialariek beren gaitasun profesionaletan TLaren kontrolarekin lotutako lanak sartzea.

1.1. ENTRENAMENDU-KARGAREN ETA NEKEAREN MONITORIZAZIOA

Gaur egun, baliabide teknologiko ugari daude entrenamendu- edo lehiaketa-karga eta nekea monitorizatzeko (Alexandre et al., 2012; Borresen & Lambert, 2009; Campos-Vázquez, Castellano, Toscano-Bendala, & Owen, 2019; Ehrmann, Duncan, Sindhusake, Franzsen, & Greene, 2016; Malone et al., 2015a; Malone et al., 2015b; Rogalski, Dawson, Heasman, & Gabbett, 2013; Scott, Lockie, Knight, Clark, & Janse de Jonge, 2013; Thorpe et al., 2015). Azken urteotan, informazio zabala ematen duten GPS (*Kokapen Sistema Globala* edo *Global Positioning System*) gailuak aplikatu dira egindako jardueraren edo kanpo-kargaren adierazle gisa (Abbott, Brickley, & Smeeton, 2018; Colby, Dawson, Heasman, Rogalski, & Gabbett, 2014; Cummins, Orr, O'Connor, & West, 2013; Gaudino et al., 2013; Strauss, Sparks, & Pienaar, 2019; Tierney, Young, Clarke, & Duncan, 2016). Jarduera horrek kirolariaren organismoan duen eragina neurtzeari dagokionez (barne-karga), bihotz-maiztasuna (BM) erregistratzen duten gailuak (pultsometroak), odoleko azido laktikoaren analizatzaileak edo, neurri txikiagoan, gas-analizatzaile eramangarriak (Borresen & Lambert, 2009; Campos-Vázquez, Toscano-Bendala, Mora-Ferrera, & Suarez-Arrones, 2017; Clemente et al., 2017; Djaoui, Haddad, Chamari, & Dellal, 2017; Malone et al., 2015a; Thorpe et al., 2015) nabarmentzen dira. Horiez gain, bere sinpletasuna eta kostu txikia dela eta, Esfortzuaren Pertzepzio Subjektiboaren eskala (RPE) asko erabili da azken urteotan kirol-arloan, bai entrenamendu-ariketen analisisian bai saio osoen kuantifikazioan (Barrett et al., 2018; Fessi & Moalla, 2018; McLaren, Coutts, Kelly, McGuigan, & Cormack, 2017; Rago et al., 2020).

Bestalde, orain (Gastin, Meyer, & Robinson, 2013), nekea ebaluatzeko hainbat metodo (objektiboak eta/edo subjektiboak) erabiltzen dira oro har. Alde batetik, nekea objektiboki ebaluatzeko behin eta berriz erabiltzen den prozedura jauzi bertikalen aldaera bat da (CMJ), hala nola kontramugimendudun jauziaren proba (McLean, Coutts, Kelly, McGuigan, & Cormack, 2010; Malone et al., 2015b; Thorpe et al., 2015). Beste aldetik, nekearen ebaluazio subjektiboak hainbat galdetegiren bidez egiten dira: Hopper (Hooper & Mackinnon, 1995), ongizateari lotutako aldagaiak (Thorpe et al., 2016a), TQR —errekuperazioaren indize-mailaren eskala— (Kenttä & Hassmén,

1998), POMS —*Aldartearen Profila edo Profile of Mood States*— (McNair, Lorr, & Drappelman, 1971).

Laburbilduz, esku artean ditugun aukeren artean baliozkotasun handiena dutenak bilatu behar ditugu, modu objektiboan eta subjektiboan lortutako kanpoko eta barneko aldagaien eta nekea ebaluatzeko metodoen kuantifikazio-sarea hobetzen laguntzeko asmoarekin.

Historikoki, TL bolumena eta intentsitatea biderkatuz kalkulatu izan da (Flanagan & Merrick, 2002). Futbol-entrenamendua edo lehiaketa kuantifikatzeko erabiltzen den denbora-unitatea minutua (bolumena) da (Coutts, Wallace, & Slatery, 2004). Jokalariei gutxienez zenbat entrenamendu-ordu (praktika efektiboaren minutuak) ematen dizkiegun kontrolatzea negoziatzen dirudi (Los Arcos, 2014a). Prestatzaile fisikoentzat bolumena neurtzea lan erraza da, baina intentsitatea zehaztea —batez ere entrenamenduan egoera irekiak planteatzen direnean (adibidez, joko-formatu txikietan)— zailagoa da (Karvonen & Vuorimaa, 1988; Flanagan & Merrick, 2002).

Orain arte, bolumen totala erreferentziaz hartuta aztertu dira aldagaiak, gertaeraren denbora kontuan hartzen delako (Castagna, Manzi, Impellizzeri, Weston, & Barbero-Alvarez, 2010; Di salvo, Pigozzi, González-Haro, Laughlin, & De Witt, 2013; Fessi et al., 2016; Rampinini et al., 2007a; Silva, Magalhães, Ascensão, Seabra, & Rebelo, 2013). Futbolean, ordea, lehiaketako joko-denboraren minutu bakoitzeko, distantzia erlatiboak edo egindako distantzia totalak (m/min) esfortzuen intentsitatearen isla zehatzagoa izan dezake, abiadura-tarte desberdinetara egindako distantzia totalak (DT) baino (Suarez-Arrones et al., 2015). Distantzia absolutua ez da bolumen-neurketa bat besterik; distantzia erlatiboa, berriz, intentsitate-neurketa bat da (De Hoyo & Aceña, 2017). Antza, azken urteetan tendentzia bilakatu da aldagaiak erlatibizatzea eta praktika-minututan adieraztea (Campos-Vázquez et al., 2019; Casamichana, Castellano, Díaz, Gabbett, & Martín-García, 2019a; Martín-García, Casamichana, Díaz, Cos, & Gabbett, 2018).

Bestalde, TL asteko lehiaketa-partidarekin konparatzea oso garrantzitsua da, hain zuzen ere, lehiaketa-partida asteko eskaera fisiko/fisiologiko zorrotzenak dituen saioa da (Anderson et al., 2016; Los Arcos et al., 2014c; Los Arcos et al., 2017). Horregatik, azpimarratzen da TL, termino absolutuetan kuantifikatzeaz gain (Gabbett & Ullah, 2012; Cross, Williams, Trewartha, Kemp, & Stokes, 2016), balio erlatiboak erabiliz eta sortzen duen aldaketaren portzentajea (%) behatuz ere zenbatu behar dela (Stevens, de Ruiter, Twisk, Savelsbergh & Beek, 2017). Horrek ahalbidetuko du

jokalariengan ezarritako estimulu-kargaren eskaera lehiaketaren eskaerekin konparatzea; izan ere, eskaera horiek aldakortasun handia erakutsi dute gizabanakoen artean (Ade, Fitzpatrick, & Bradley, 2016; Dellal et al., 2012b; Castellano & Blanco-Villaseñor, 2015; Schuth, Carr, Barnes, Carling, & Bradley, 2016).

Martín-García eta kolaboratzaileek (2019) entrenamendu-zereginei aplikatutako karga balioesteko modu berri hau erabili dute, eta, are gehiago, lehiaketaren eskakizun handieneko eszenatokien deskribapena ere aztertu dute (Delaney, Thornton, Burgess, Dascombe, & Duthie, 2017), entrenamendu-saioetan erabilitako joko-formatu desberdinak demarkazio bakoitzerako lehiaketaren eskakizun maximoak bete ditzaketen azaltzeko. Izan ere, batez besteko (BB) balio horiek soilik erabiltzen badira entrenamendu-lanak eta -saioak diseinatzeko orduan, lehiaketaren eskakizunak gutxietsi edo handietsi egin litezke, eta, beraz, egoera fisikoa optimizatzeko programen garapena mugatu (Campos-Vázquez & Lapuente, 2018). Honenbestez, jokalarien ongizatea bermatzeko interesgarria izan liteke TL kuantifikatzean balio erlatiboan BBak erabiltzeaz gain balio maximoak erabiltzea. Azken finean, demarkazio bakoitzerako entrenamendu-saioen diseinuan fintzeak jokalarien errendimendu fisikoa optimizatzen (Martín-García et al., 2019) eta lesio-aukerak murrizten lagunduko luke (Gabbett, 2016a).

1.2. ENTRENAMENDU-KARGA ETA HONEK NEKEAREKIN DUEN ERLAZIOA

Entrenamenduaren helburu nagusia da futbol-talde bateko jokalarien lehiaketako errendimendua optimizatuko duen eta entrenamendu horren ondorio negatiboak (freskotasun falta, nekea, gaintrenamendua edo lesioa) minimizatuko dituen entrenamendu-estimulu bat ematea (Gabbett, Jenkins, & Abernethy, 2012). Futbol-jokalariek entrenamenduan eta lehiaketan dituzten kargak neke metabolikoa, neuromuskularra edo mentala eragin dezakete aldi baterako (Campos-Vázquez & Toscano, 2014), eta ondorioz, errendimendua murriztu (Fessi et al., 2016) eta jokalariari lesioak eragiteko aukera handitu (Ehrmann et al., 2016). Izan ere, TLak behar bezala ez erabiltzea da ukipenik gabeko lesioen arrisku-faktore nagusietako bat (Soligard et al., 2016).

Hala ere, estimulu-dosi egokiek kirol-errendimenduan hobekuntza nabarmenak eragiteko eta lesio-arriskua murrizteko ahalmena izan dezakete (Gabbett, Hulin, Blanch, & Whiteley, 2016b). Beraz, kirol-prestatzaile fisiko eta teknikoentzat entrenamendu-dosi optimoa zehaztea oso garrantzitsua da. Hain zuzen ere, karga maniatuz eta kontrolatuz jakin genezake entrenamendu-dosia

zer preskripzio izan beharko lukeen (Akenhead, Harley, & Tweddle, 2016), komeni denean neke akutua murrizten saiatzeko (freskotasuna hobetuz); hala, jokalaria lesio-arrisku handiagotik urrun kokatzeko (Gabbett, 2016a). Ez da lan erraza kargaren, neke-freskotasunaren eta errendimenduaren arteko erlazio optimoak bilatzea; izan ere, prozesu indibiduala da, eta, batzuetan, lan-kargarekiko independenteak diren kanpo- eta barne-faktoreek eragiten dute (Gabbett et al., 2012).

Kanpo-karga futbolarien organismoan egokitzapenak eragiteko jokalariai proposatzen zaizkion jardueren multzoa da (Wallace, Slattery, & Coutts, 2009). Futbol-jokalariai lehiaketan eta entrenamenduan egiten duen lan fisikoa da (lasterketa-kopurua, DT, azelerazioak, etab.). Barneko karga, berriz, estimulu horrek norbanakoarengan eragiten duen erantzun fisiologikoa da (alterazio homeostasikoa), eta, seguruenik, kirolariengan eragin anatomikoak, fisiologikoak, biomekanikoak, funtzionalak eta psikosozialak izango ditu (Halson, 2014).

Kanpoko karga da barneko karga zehazteko faktore nagusia (Impellizzeri, Rampinini, & Marcora, 2005), nahiz eta beste faktore batzuek ere eragina izan dezaketen, esaterako, atletaren egoera genetikoak edo mailak (Bouchard & Rankinen, 2001). Ideia horri dagokionez, esan behar da kanpoko kargaren kalitateak eta kantitateak eragin zuzena duela barne-kargan, hau da, kanpo-karga berak ondorio bereziak izango dituela edukiak modu desberdinean antolatzen badira (Gallo, Cormack, Gabbett, Williams, & Lorenzen, 2015).

Eta, jakina, bi gorputz ezberdinek jasaten duten kanpoko karga berak egokitzapen desberdinak (barneko karga) izan ditzake (Castagna, Impellizzeri, Chaouachi, Bordon, & Manzi, 2011; Impellizzeri, Rampinini, Coutts, Sassi, & Marcora, 2004; Manzi, Bovenzi, Impellizzeri, Carminati, & Castagna, 2013). Are gehiago, antzeko gaitasun aerobikoak dituzten jokalariek (Abt & Lovell, 2009) modu desberdinean asimilatzen dute kanpoko karga bera, eta horregatik, baliteke jokalaria guztientzat egokia ez izatea (gehiegizko edo gutxiegizko karga). Hori dela eta, ezinbestekoa da TL ezagutzea, talde teknikoko kideok aukera izan dezagun lesioen agerraldia aurreikusteko (Gabbett & Jenkins, 2011) edo jokalarien egoera fisikoan (Los Arcos, 2014a) aldaketak eragiteko. Horregatik, funtsezkoa da lan-karga sistematikoki monitorizatzea, trebakuntza-kargaren kantitatea, kalitatea eta ordena modu egokian planifikatu eta esku hartzeko; horrela, entrenamendu-prozesuaren eraginkortasuna maximizatuko dugu (Impellizzeri et al., 2005).

Bestalde, ezarritako kargaren ondorioz, jokalaria baten errendimendua aldi baterako murrizten da nekearen ondorioz, eta horregatik, nekea ebaluatzea ere oso garrantzitsua da (Gabbett, 2016a). Nekea muskulu-jarduerarekin lotutako muskulu-errendimenduaren edozein murrizketa da (Nédélec et al., 2012a). Gainera, egoera fisikoa areagotzeko karga optimoa aurkitzeko ahaleaginean, gero eta joera handiagoa dago jokalariek jasandako estimulu-kargaren eta horrek eragiten duen nekearen arteko harremanak aztertzeko (Thorpe et al., 2016b); hala, futbol-jokalariai partidarako fresko egotea ahalbidetzen da, eta ahal dela, altuegiak edo baxuegiak, jokalaria lesionatzeko arriskuan jartzen duten karga horiek saihestu (Sangnier, Cotte, Brachet, Coquart, & Tourny, 2019).

Horrela, jokalarien lan-karga indibidualiza dezakegu, beharraren arabera karga gutxituz edo handituz. Izan ere, nekearen ondorioz jokalarien errekupeazioaren indize-maila ona ez bada, errendimendua ez da ona izango (Brink et al., 2010). Hortaz, jokalarien ongizatea bermatzeko ezinbestekoa da lan-karga eta horrek eragiten duen nekea ebaluatzea.

2. MARKO TEORIKOA



2. MARKO TEORIKOA

2.1. ENTRENAMENDU-KARGAREN MONITORIZAZIOA FUTBOLEAN

Ukaezina da TLaren monitorizazioa benetan giltzarri bihurtu dela talde teknikoen lanerako, besteak beste, entrenamenduak planifikatzeko eta periodizatzeko, egoera fisikoa optimizatzeko (Graham, Cormack, Parfitt, & Eston, 2018) eta, ahal den neurrian, lesio-arriskua murrizteko (Gabbett, 2016a). Izan ere, entrenamenduaren eta lehiaketaren TLaren monitorizazioari esker, planteatzen ditugun entrenamendu-ariketetan lehiaketaren eskaerak erreplikatzeko ditugun jakitea lortuko genuke (Abbott et al., 2018; Lancome, Simpson, Cholley, Lambert, & Buchheit, 2018).

Horretarako, TLaren kontrol eta manipulazio zehatza behar da. Impellizzeri eta autoreek (2004) esparru teoriko bat proposatu zuten trebakuntza-prozesuaren konstruktuko neurgarriak definitu eta kontzeptualizatzeko. TLak bi osagai neurgarri ditu: kanpokoa eta barnekoa. Jokalarien entrenamendu edota lehiaketa-partidetako kanpo-karga (distantziak, azelerazioak, intentsitate altuko esfortzuak...) kuantifikatzeko gehien erabiltzen den metodoetako bat GPS gailua da (Malone et al., 2018; Oliveira et al., 2019; Tierney et al., 2016). Eta, jokalarien barneko TL kuantifikatzeko, bi metodo dira gehien erabiltzen direnak: BM (Campos-Vázquez et al., 2017; Malone et al., 2015a; Thorpe et al., 2015) eta RPE (Barrett et al., 2018; Fessi & Moalla, 2018; McLaren et al., 2017).

Lerrootan laburbildu ditugu futbolean kanpo- eta barne-karga kuantifikatzeko gehien erabili diren metodo eta aldagaiak. Horrela, zer karga-adierazle dauden, nola erabil ditzakegun eta aldagaiek zer abantaila eta desabantaila dituzten jakingo dugu. Horrenbestez, lehiaketa-prozesua eta entrenamendu-prozesua ongi kontrolatzeko entrenatzaile eta prestatzaile fisikoek zer tresna erabil ditzaketen aipatuko dugu.

2.1.1. KANPO-KARGAREN MONITORIZAZIOA

GPSa bidezko nabigazio-sistema bat da, eta talde-kiroletan mugimendu-ereduak eta lan-kargak aztertzeko gehien erabiltzen den metodoetako bat da (Ehrmann et al., 2016; Malone et al., 2018; Rossi et al., 2019). Azterketa horiek egiteko, kirolariek entrenamenduan edo lehiaketan GPS gailu eramangarriak eraman behar dituzte bizkarrean, motxila edo peto txiki batean sartuta. Futbol-jokalari profesional askok ez dute gustuko GPSa erabiltzea, deserosoak iruditzen zaizkielako (edo

beste edozein arrazoirengatik), eta prestatzaile fisikoek arrazoitu egin behar dute GPS gailuek etorkizunean emaitza hobekak lortzen lagunduko dietela (Bacon & Mauger, 2017; Theodoropoulos, Bettle, & Kosy, 2020). Futbolean, orain dela gutxira arte, GPS gailuak ez zeuden baimenduta partida ofizialetan. 2015. urtean, FIFAk (*Asoziazio Futbolaren Nazioarteko Federazioa edo Federation International Football Association*) memorandum baten bidez legezkoak bihurtu zituen, eta Espainiako Ligan 2015/2016 denboralditik aurrera erabiltzen hasi ziren. Ordura arte, azterketa gehienak entrenamenduetan egin ziren (Casamichana & Castellano, 2010; Casamichana, Castellano, Calleja-Gonzalez, San Román, & Castagna, 2013b; Hill-Haas, Dawson, Impellizzeri, & Coutts, 2011; Scott, et al., 2013).

Gaur egun, ordea, ikerlari askok erabili dute GPSa futbolean, partidetakoa eta entrenamenduetako nekea detektatzeko, intentsitate handiko jokaldiak identifikatzeko eta futbol-zelaian jokalariek hartzen duten demarkazio bakoitzaren jarduera-profilak identifikatzeko (Aughey, 2011). Gainera, ikerketa-eremua zabaltzen ari da, eta teknologia hori erabiltzen da talde bereko jokalarien lan-kargak indibidualizatzeko, entrenamendu-lanen eskaerak aztertzeke, plangintza-prozesua optimizatzeko eta gainentrenamenduaren edo desentrenamenduaren sindromea saihesteko (Campos-Vázquez, 2015a; Helsen et al., 2014). Ikerketek erakutsi dute jokalarien entrenamenduetako edota partidetakoa kanpoko karga monitorizatzeko 10Hz-eko GPS gailuak fidagarriak eta baliagarriak direla (Akenhead, French, Thompson, & Hayes, 2014; Castellano, Casamichana, Calleja-González, San-Román, & Ostojic, 2011; Johnston, Watsford, Kelly, Pine, & Spurs, 2013).

2.1.1.1. Aztertu beharreko aldagaien sailkapena

Arlo honetako bibliografia aztertzen dugunean, ikerketen arteko konparazioak egiteko funtsezko bi arazo nagusi izaten ditugu: alde batetik, merkatuan eskuragarri dauden eta azterketetan erabiltzen diren gailu desberdinak (marka, modeloa) eta, bestetik, aztertutako aldagaien arteko desberdintasunak. GPS teknologia erabiltzeak goitik behera aldatu du jokalariek jasaten dituzten kargak eta errendimendua erregistratzeko, ikuskatzeko eta aztertzeke modua. Denboraren poderioz, gailu horietan azelerometroak, giroskopioak, magnetometroak eta abar gehitu dituzte, eta horrek ekarri du gero eta datu gehiago eman ditzaketela, eta baita dimentsio berriak ekarri ere (talkak, estres mekanikoa, azelerazioak, ...). GPSei distantziei, abiadurei, norabide-aldaketei, azelerazioari eta dezelerazioari buruzko datuak biltzen dituzte. Datu horiek funtsezkoak dira gaur egun talde-kirolean, hala nola futbolean. GPSan oinarritutako teknologia eta berariazko analisi-softwarea erabiliz, lau

mailatan sailka daitezkeen aldagaiak hartu ditugu kontuan. Sailkapen horretarako Buchheit eta Simpson (2017) ikerlarien proposamena erabili eta egokitu dugu:

- I. Maila: Abiadura-tarte desberdinetara egindako distantziak.
- II. Maila: Abiadura-aldaketekin —azelerazioak, dezelerazioak, norabide aldaketak— lotutako gertaera guztiak.
- III. Maila: Dimentsio-inertziala, sentsore inertzialetatik/azelerometroetatik eratorritako gertaera guztiak.
- IV. Maila: Dimentsio-metabolikoa, neurri hibridoa da, 1. eta 2. mailako aldagaietan oinarritua.

2.1.1.2. I. Maila: Abiadura-tarte desberdinetara egindako distantziak

Futbol-jokalarien mugimenduak aztertzeko orduan, jokalariek entrenamenduetan zein lehiaketan egiten dituzten distantziak neurtzen dira. Horiek balio absolutuetan edota intentsitate-maila ezberdinetan monitorizatu daitezke. Azterketa gehienek intentsitate-maila horiek abiadura-tarte desberdinetara egokitzen dituzte (Buchheit, Mendez-Villanueva, Simpson, & Bourdon, 2010; Di Salvo et al., 2007; Di Salvo et al., 2009; Rampinini, Coutts, Castagna, Sassi, & Impellizzeri, 2007b; Scott et al., 2013).

Hau da, adibidez Casamichana eta lankideek (2012) jokalariek egindako DT bost intentsitatetan banatzen dute: oinez (0-6.9 Km/h), korrika (7.0-12.9 Km/h), intentsitate txikiko lasterketa (13.0-17.9 Km/h), intentsitate handiko lasterketa (18.0-20.9 Km/h) eta esprinta (> 21 Km/h). Horrez gain, beste aldagai batzuk ere hartu dira kontuan, hala nola abiadura-puntak (Owen, Wong, Paul, & Dellal, 2014), lan-atsedenaren ratioa edo *Work-rest ratio* (Casamichana, Castellano, & Castagna, 2012), errepikatutako esprint-sekuentziak (Suarez-Arrones et al., 2015), eta intentsitate handiko sekuentzia errepikatuak (Casamichana et al., 2012).

Aitzitik, aipatu behar da distantzia-eremu bakoitzerako abiadura-mugak zehazterakoan ez dagoela irizpide bateraturik (De Hoyo & Aceña, 2017). Esate baterako, Dellal eta lankideek (2011) esprint bat 17 km/h-tik gorako lasterketa-abiaduratzat kontsideratu zuten eta Casamichana eta lankideek (2013a), berriz, atalase hori 21 km/h baino handiagoa zela definitu zuten. Beste autore batzuek 24 km/h-tik goragoko abiadura (Dellal, Wong, Moalla, & Chamari, 2010) edo 30 km/h-ko

abiadura (Mohr, Krstrup, & Bangsbo, 2003) erabili dute. Futbolarien lasterketa-abiaduraren balio maximoak 31-32 km/h ingurukoak dira (Haugen, Tønnessen & Seiler, 2013; Rampinini et al., 2007b).

Autoreen arteko desadostasun nagusia intentsitate-eremuak definitzeko abiadura-atalaseak ezartzea da. Maila honetan, bi aukera ditugu: batetik, balio erlatiboetan oinarritutako atalaseen definizioa eta, bestetik, balio absolutuetan oinarritutako atalaseen definizioa. Kirolari bakoitzak egoera fisiko ezberdina izan dezakeela kontuan hartuta, atalase absolutuen arabera erantzun fisikoak aztertzeak okerreko interpretazioak eragin ditzake. Izan ere, ikuspegi horren muga bat da ez duela kontuan hartzen jokalarien "banakako esprint-gaitasuna". Beraz, azkarrenek lasterketa-abiadura maximoaren ehuneko baina pixka bat txikiagoa izango dute ziurrenik; geldoenek, berriz, lasterketa-abiadura maximoaren ehuneko baina handiagoa. Egoera fisikoan desberdintasunak dituzten bi subjektuentzako kanpo-karga absolutuak barne-karga desberdina eska dezake subjektu bakoitzean. Hortaz, kanpo-karga absolutuak jokariengan entrenamendu-efektu desberdinak eragin ditzake. Horregatik, zenbait autorek atalase indibidualak (Abt & Lovell, 2009; Lovell & Abt, 2013) edo fisiko-fisiologiko indibidualak (lasterketa-abiadura maximoa eta abiadura maximo aerobikoa) proposatzen dituzte jokalarien mugimendu-ereduak aztertzeko (Buchheit, Simpson, & Mendez-Villanueva, 2013).

2.1.1.3. II. Maila: Abiadura-aldaketa (azelerazioa)

Azelerazioa metabolikoki eskaera handia duen jarduera bat da, abiadura konstanteko desplazamenduak baino gastu energetiko eta neke muskular handiagoa sorrarazten duena (Osgnach, Poser, Bernardini, Rinaldo, & di Prampero, 2010). Talde-kiroletan maiztasun handiarekin gertatzen dira azelerazioak, dezelerazioak eta norabide-aldaketak (Hader, Palazzi, & Buchheit, 2015; Krstrup, Mohr, Ellingsgaard & Bangsbo, 2005; Stølen et al., 2005). Tradizionalki, ikerlariak abiadura desberdinetako maila kualitatiboak erabiliz monitorizatu dituzte esfortzu horiek (Suárez-Arrones et al., 2014), baina aipatzekoa da, halaber, hainbat ikerketak muga nabarmenak erakutsi dituztela iraupen laburreko mugimenduetan intentsitate handiko esfortzuak erregistratzeko, abiadura absolutuaren atalaseak erabiliz (Haugen & Buchheit, 2016).

Futbolaren kasuan, azelerazio maximoen % 85 baino gehiago ez da iristen desplazamendu-abiadura handiko kategorietara ($>4.17 \text{ m}\cdot\text{s}^{-2}$; Varley & Aughey, 2013). Hortaz, ekintza horiek ez dira intentsitate handikotzat hartuko, desplazamendu-abiaduraren analisi tradizionalari jarraitzen badiogu. Futbolean azelerazio maximoak ($>2.78 \text{ m}\cdot\text{s}^{-2}$) esprint-ekintzak baino zortzi aldiz gehiago gertatzen

dira (Varley & Aughey, 2013). Horregatik, beharrezkoa iruditzen zaigu entrenamendu edota futbol-partidetan horrelako esfortzuak sakon aztertzea.

Dimentsio berri horrek garrantzia hartzen du futbolarien eskaeren deskribapenean; izan ere, azelerazio maximoan baina abiadura txikian egindako ekintzak gutxien ari dira, eta, beraz, zenbait autore dagoeneko hasi dira horietan arreta jartzen (Castellano & Casamichana, 2013; Sonderegger, Tschoop, & Taube, 2016; Varley, Aughey, & Pedrana, 2011). Normalean, azelerazio eta dezelerazioak neurtzeko, intentsitate-maila desberdinetan egindako azelerazioen kopurua, distantzia eta iraupenak erregistratzen dira. Intentsitate handiko azelerazio eta dezelerazioetako intentsitate-kategoriak zehazteko, zenbait autorek intentsitate absolutuko atalaseak erabili dituzte. Hala, Bradley eta lankideek (2010) bi azelerazio-atalase definitzen dituzte: a) moderatua, $2.5 \text{ m}\cdot\text{s}^{-2}$ -tik $4.0 \text{ m}\cdot\text{s}^{-2}$ -ra, eta b) handia, $4.0 \text{ m}\cdot\text{s}^{-2}$ -tik gora. Geroago, Akenhead eta kolaboratzaileek (2013) atalase horiek honela definitu zituzten: a) txikia, $1\text{-}2 \text{ m}\cdot\text{s}^{-2}$, b) ertaina, $2\text{-}3 \text{ m}\cdot\text{s}^{-2}$, eta c) handia, $3 \text{ m}\cdot\text{s}^{-2}$.

Aitzitik, Varley eta Aughey autoreek (2013), $2.78 \text{ m}\cdot\text{s}^{-2}$ balio absolutua erabili zuten. Hala ere, atalase absolutu horiek ez dute kontuan hartzen jokalaria azeleratzen hasten den abiadura. Hori dela eta, kontuan hartu behar da azeleratzeko ahalmena handiagoa dela azelerazioak gelditze-posiziotik edo abiadura txikitik hasten direnean, beste edozein abiaduratatik baino (Sonderegger et al., 2016). Hala, azelerazio absolutuaren atalaseek ekintzak azpi-estimatzera jotzen dute hasierako abiadura handia denean, edo ekintza horiek supra-estimatzera hasierako abiadura txikia denean (Sonderegger et al., 2016). Horregatik, aipatu behar da kirolariaren azelerazio-ahalmen maximoa haren gaitasun fisikoekin lotuta dagoela, eta, beraz, erregistro-sistemek haren fidagarritasuna, baliotasuna eta zehaztasuna hobetu ahala, intentsitate-atalase horiek jokalariaren banakako profilei erantzun beharko dietela.

2.1.1.4. III. Maila: mugimendu inertziala

Kirol-entrenamenduari buruzko azterketek jokalariaren kanpo-karga neurtzeko inertzia-sentsoreak erabili dituzte (Castillo, Weston, McClaren, Cámara, & Yanci, 2017). GPS mikroteknologia-gailuetan txertatutako giroskopio, magnetometro eta azelerometro triaxialei esker, lan-patroiei eta karga fisikoei buruzko informazioa jaso daiteke, hala nola azelerazioak, desazelerazioak, jauziak, norabide-aldaketak edo azelerometrotik eratorritako bestelako neurketak (Wundersitz, Gastin, Robertson, Davey, & Netto, 2015). Sistema horiek talde-kiroletako jardura

fisikoaren eskaerak neurtzeko balioztatuak izan dira (Boyd, Ball, & Aughey, 2011). Gaur egun gehien erabiltzen den karga-aldagaietako bat, azelerometroaren seinaletik abiatuta, jokalariaren karga (PL) da (Barrett et al., 2016; Bradley et al., 2010; Dalen, Jørgen, Gertjan, Havard & Ulrik, 2016; Reche-Soto et al., 2019).

PL terminoa Catapult Sports-ek (kirol-teknologia eskaintzen duen enpresa) proposatu du. Azelerometro triaxialek erregistratzen dituzten azelerazio-datuen arabera kalkula daiteke PL aldagaia. Hau da, azelerometroaren bidez lortzen da haren balioa, GPS gailuetan dagoen azelerometro triaxialaren bidez gorputzeko hiru mugimendu-planoetan (X, Y eta Z planoak) sortutako azelerazioak konbinatuz (Cummins et al., 2013; Waldron, Twist, Highton, Worsfold, & Daniels, 2011). Horretarako, kontuan hartzen da denbora-tarte batean azelerazioak duen aldaketa, eta azkenik, Boyd eta lankideek (2011) planteatzen duten bezala eskala-faktore baten arabera zatitzen da (zati 100). Azelerometro horren emaitza unitate arbitrariotan (UA) adierazten da (Barrett et al., 2016). Lehen aipatutako definizioa Montgomery eta lankideek (2010) aurkeztu dute beren lanean, eta Boyd eta ikerlariak (2011) PL definizioari ekuazio hau erantsi diote:

$$PL = \frac{\sqrt{(a_{y1} - a_{y-1})^2 + (a_{x1} - a_{x-1})^2 + (a_{z1} - a_{z-1})^2}}{100}$$

Ikerketek erakutsi dute PL metodoa fidagarria eta baliagarria dela jokalarien kanpo-karga aztertzeko (Gómez-Carmona, Pino-Ortega, Sánchez-Ureña, Ibáñez, & Rojas-Valverde, 2019; Hollville, Couturier, Guilhem & Rabita, 2016). Futboleko, adibidez, PL aldagaia erabili izan da joko murriztueto eta lagunarteko partideto edo lehiaketeto eskaera profilarekin alderatzeko (Casamichana et al., 2012; Gómez-Carmona, Gamonales, Pino-Ortega, & Ibáñez, 2018). Gainera, ikusi izan da PL aldagaia korrelazioan dagoela kirolariak ematen dituzten puntuaketa subjektiboekin (Casamichana et al., 2013b) eta aldagai fisiologikoekin, hala nola BMarekin eta oxigeno-kontsumo maximoarekin (VO_{2max}) (Barrett et al., 2016).

Bestalde, aipatu behar da PL aldagaia erabiltzeaz gain PL2D (Player Load 2D) aldagaia ere erabili genezakela jokalarien karga monitorizatzeko (Johnston, Gabbett, & Jenkins, 2014; Johnston, Gabbett, Seibold, & Jenkins, 2014). PL2D aurreko eta alboko ardatzen datu-metaketa da. Jokalarien lan-karga neurtzeko metodo honek PL eta DT aldagaien arteko erlazio esponentziala du oinarrian

(Boyd, Ball, & Aughey, 2013; Boyd et al., 2010). Hori dela eta, eskaera fisikoak neurtzeko ahaleginean, PL aldagaiaren ekuaziotik bektore bertikala ken genezake beste hainbat autorek egin duten moduan (Gabbett, 2015; Roe, Till, Beggs, & Jones, 2016).

2.1.1.5. IV. Maila: Dimentsio metabolikoa

Modu berritzailean, datuak minimizatu eta informazioa maximizatzeko ahaleginean, di Prampero eta lankideek (2005) jokalarien jarduera fisikoa kuantifikatzeko potentzia metabolikoa (PM) izeneko beste adierazle bat proposatu zuten. PM jokalariei jarduera fisikoak eragindako kostu energetikoa (KE) estimatzeko ere erabili izan da (Osgnach et al., 2010). PM edozein mugimendutan erabilitako ATPa (adenosina trifosfato) berrosatzeko denbora-unitate bakoitzeko behar den energia-kantitate osoaren neurria da. Lasterketan, baita beste edozein lokomozio-motatan ere, aldiuneko abiaduraren (AA) eta gorputz-masaren eta distantziaren unitateari dagokion KEren biderkadurak unean uneko PMA sortzen du: $PM = AA * KE$.

PMaren ekuazioa Minetti-ren (2002), Osgnach-en (2010) eta Gaudino-ren (2013) lankideen lan zientifikoetan argitaratu zen. PMaren kontzeptuak GPS gailuen bidez neurtzen diren azelerazio- eta dezelerazio-gertaeren energia-eskaerak estimatzen ditu. Abiadura konstanteko esfortzu batean AAren eta KEaren balioak iraunkorrek badira, PMA abiaduraren funtzio lineal gisa handituko da. Baina hori ez da futbolaren kasua; izan ere, abiadura edota azelerazioak aldatzen doaz kirol honen izaera intermitentea dela eta.

Abiadura eta azelerazioa kontuan hartzen dituen metodoa erabilia, Osgnach (2010), Gaudino (2013) eta lankideek erakutsi dute futbol-jokalariek partidetan eta entrenamenduetan intentsitate handiz egiten duten jarduera bi eta hiru aldiz handiagoa dela, hurrenez hurren. Horrek esan nahi du jokalariek egindako distantzia 1.2 eta 1.3 aldiz handiagoa izan daitekeela abiadura soilik hartzen duen metodoaren bidez kalkulaturakoak baino. Horrez gain, aipatzekoa da Reche-Soto eta haren laguntzaileak (2019) PLaren eta PMaren arteko erlazioa deskribatzen saiatu direla futbolaren partida ofizialetan kanpo-kargako aldagai gisa, eta emaitza esanguratsuak lortu dituztela.

PMaren aldagaia kilogramoko wattetan adierazten da (W/kg). Neurri hori unitate arbitrarioetan analizatzen da, eta honela sailkatzen da: potentzia txikia (0tik 10era W/kg), potentzia ertaina (10etik

20ra W/kg), potentzia handia (20tik 35era W/kg), potentzia oso handia (35etik 55era W/kg) eta potentzia maximoa (>55 W/kg) (Osgnach et al., 2010).

2.1.2. BARNE-KARGAREN MONITORIZAZIOA

2.1.2.1. Bihotz-maiztasuna

BM TL kontrolatzeko futbolean gehien erabili den metodoetako bat da (Akubat, Patel, Barnett, & Abt, 2014; Alexiou & Coutts, 2008; Bangsbo, 1994; Dellal et al., 2012a; Eniseler, 2005; Little & Williams, 2007; Stølen et al., 2005), BM monitorizatzeko sistemen bidez lortutako datuek informazio asko ematen baitute. BM denbora-unitate bateko bihotz-taupaden kopurua da. BM handitu edo txikitu egiten da, gorputzaren eskaerei erantzunez oxigenoaren eskaera eta entrega orekatzeko.

Autore batzuen arabera, BMaren monitorizazioa ariketaren intentsitatearen adierazle egokia da intentsitate submaximoetan honek VO_2 -arekin adierazten duen erlazio ia linealagatik (Achten & Jeukendrup, 2003; Impellizzeri et al., 2004). BMaren neurketa O_2 kontsumoaren zeharkako markatzaile gisa erabiltzea tresna baliotsua, erabilerraza eta nahiko merkea bihurtu da (Helsen et al., 2014). Horregatik, BM futbolarien barne-karga aztertzeko metodo fidagarria eta baliagarria dela esan dezakegu (Dellal et al., 2012a; Suarez-Arrones et al., 2015).

BMaren kuantifikazioa pulstometro gailuen bitartez egin daiteke. Pulstometro bidezko TLaren analisia ez da garestia eta denbora aldetik efizientea da. Gainera, aldi berean, kirolari ugari monitorizatzeko aukera eskaintzen du. Pulstometroa hautatu duten azterlan gehienetan, BM bost segundoan behin erregistratzen dutenak erabili dituzte, eta aipatutako gailuen fidagarritasuna aurreko ikerketetan adierazia izan da (Dellal et al., 2012a; Macleod & Sunderland, 2012).

Entrenamendu- zein lehiaketa-kargaren monitorizazioa bihotz-maiztasun maximoaren (BMmax) %en arabera egin daiteke (Wong et al., 2011). BMmax aldagaiak jokalaria jarduera batean lortu duen gailurra zein izan den adierazten du. BMmax neurtzeko korrika egiteko zinta batean proba progresibo maximo bat egin dezakegu (Graff, 2002), baina badira beste zenbait metodo ere (Bruce, Fisher, Cooper, & Grey, 1974; Londoree & Moeschberger, 1982; Tanaka, Monahan, & Seals, 1991). BMmax-aren balio absolutua soilik aprobeitza daiteke jokalaria bera ariketen segida batean konparatzeko, baina haren adierazgarritasuna galtzen du hainbat jokalaria konparatu nahi ditugunean.

BMmax-aren ehunekoa (%) erabiltzean (balio erlatiboa), aldiz, hainbat jokalariren eta ariketaren artean konparazioak egiteko aukera izaten dugu.

Beraz, BM datuen analisisia balio erlatiboen (% BMmax) bitartez egiteak berebiziko garrantzia du, eta bide horretan, Edwards (1993) zientzialariaren proposamena erabil genezake, beste hainbat ikerketatan egin duten bezala (Alexiou & Coutts, 2008; Campos-Vázquez et al., 2015b; Impellizzeri et al., 2004; Los Arcos, Gil-Rey, Izcue, & Yanci, 2013). Edwards-en metodoari esker, jokalariaren barne-karga kuantifika genezake ezarritako BMko bost zonak batuta. Horretarako, lehenik kontuan hartu behar dugu jokalariak zona bakoitzean igarotako denbora (minututan). Metodo horrek gidatzen hartzen du zona horiek zehazteko % BMmax aldagaia:

- (Z1) BMmax % 50-60
- (Z2) BMmax % 60-70
- (Z3) BMmax % 70-80
- (Z4) BMmax % 80-90
- (Z5) BMmax % 90-100

Ondoren, zona bakoitzean pasatako denbora balio jakin batez biderkatu behar da. Zona bakoitzak balio jakin bat du (1etik 5era); zenbat eta handiagoa izan jokalariak egindako esfortzua, orduan eta handiagoa izango da zonetan igarotzen den denbora biderkatzeko erabiliko den zenbakiaren balioa. Karga neurtzeko ezartzen den formula zehatza honako hau da:

- Edwards-en formula = $(Z1*1) + (Z2*2) + (Z3*3) + (Z4*4) + (Z5*5)$

Metodo hori asko erabili da futbolariekin egindako ikerketetan (Borresen & Lambert, 2008; Casamichana et al., 2013b; Campos-Vázquez et al., 2015b). Metodo horren muga nagusizat hartzen dira definitutako eremu arbitrarioak, eta zona horien definizioak ez duela irizpide fisiologiko edo metabolikorik. Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da, kirol-zientzialariek adierazi diguten bezala, metodo honek korrelazio sendoak dituela karga kontrolatzeko beste metodo batzuekin, hala nola sRPEarekin (RPE saioko), DTarekin eta PLarekin (Casamichana et al., 2013b; Los Arcos et al., 2013;

Scott et al., 2013). Edwards-en (1993) metodoaz gain, beste aukera oso praktiko batzuk ere aurki ditzakegu, besteak beste Banister-en (Banister, 1991), Lucia-ren (Lucia, Hoyos, Santalla, Earnest, & Chicharro, 2003) eta Stagno-ren (Stagno, Thatcher, & Van Someren, 2007) metodoak.

Aitzitik, Henderson eta lankideek (2015) proposatu zuten metodoa, hein batean, Edwards-ek (1993) proposaturikoaren eboluzio bat da. Metodo honetan ere, BM entrenamendu-zona bakoitzean igarotako minutuak kontrolatzen dira: lehenengo zona BMmax % 50-80 da, bigarrena BMmax % 80-90, eta azkena, BMmax % >90tik gora emandako minutuak. Baina Edwardsek ez bezala, Henderson eta lankideek ez dute beste azterketarik egiten, minutuak bakarrik kontrolatzen dituzte. Henderson eta lankideen alde, Akenhead eta Nassis (2016) autoreek deskribatu duten moduan, jokalarien lan-karga kuantifikatzeko aldagai erabileenen artean, BMmax % >85 aldagaia aurkitzen da.

Horregatik, jokalarien barne-karga monitorizatzean ez genuke joan beharko BMmax-ren %-tik sortutako entrenamendu-zona desberdinetan pasatuko denboraz haratago, denbora hori soilik analizatuta nahikoa izan liteke eta. Normalean, gauza konplexuek —hau da, formula matematikoez, Stagno, Lucia, Banister, Edwards eta abar—, gauza sinpleek baino meritu gehiago dutela pentsatzeko joera dugu, ahalegin eta lan gehiago eskatzen baitute. Gauza guztietan legez, jokalarien lan-kargen monitorizazioan ere sinpleak izan beharko liratekeen gauzak korapilatze joera dugu entrenatzaileok.

2.1.2.2. RPE (Esfortzuen Pertzepzio Subjektiboa edo Rating of Perceived Exertion)

BMaren analisisian oinarritzen diren metodoek muga garrantzitsu bat dute: intentsitate handiko edota iraupen laburreko ariketak ebaluatzeko eraginkortasun falta (Alexiou & Coutts, 2008; Rebelo et al., 2012). Lan-karga adierazle bakartzat hartutako BMaren metodoak jarduera mota horietan interesgarriak diren beste eskaera batzuk ezkutatu ditzake. Horregatik, barne-karga monitorizatzeko RPE aldagaia arazo horren konponbidea izan daiteke. Barne-kargaren gainerako aldagaiak ez bezala, RPE aldagaia subjektiboa da eta jokalariek entrenamendu- edota lehiaketa-lanetan hautemandako esfortzua monitorizatzeko aukera ematen du. Futbolean gero eta ohikoagoa da metodo honen erabilera (Casamichana & Castellano, 2013b; Fanchini et al., 2014; Impellizzeri et al., 2004; Los Arcos, Yanci, Mendiguchia, & Gorostiaga, 2014c; Manzi, D'Ottavio, Impellizzeri, Chaouachi, Chamari, & Castagna, 2010). RPE galdetegia banakako barne-karga kontrolatzeko tresna ez-fisiologiko erabilgarria da, erraz erabiltzen delako eta klubentzat inolako kosturik ez duelako.

Bestalde, aldagai fisiologiko tradizionalekin alderatuz gero, metodo honetan lorturiko balioak osoagoak dira, kirolarien estres fisiologikoz gain psikologikoa ere baloratzen dutelako (Borg, 1998; Coutts, Reaburn, Piva, Murphy, 2007). Gainera, entrenamendua edota partida amaitu bezain laster, inongo zailtasunik gabe aplikatu dakioke talde handi bati (Los Arcos, 2014a; Uchida et al., 2014). Horretarako, Foster-en sRPE metodoak (Foster et al., 2001) kalkulu erraz baten bitartez entrenamenduaren barne-karga monitorizatzeko aukera eskaintzen du. Eredu hau entrenamenduaren ondoren jokalariai Borg-10 eskalan (Borg, 1985) ematen duen puntuaketan oinarritzen da. RPE balioa entrenamenduaren iraupenagatik (minutuak) biderkatu behar da unitate arbitrarioetan lan-kargaren magnitudea adierazteko. Aplikatzen den formula honako hau da, zehazki:

- $sRPE = \text{Bolumena (min)} * RPE \text{ balioa}$

Gaur egun, RPEaren barruan, bi aldaera erabiltzen dira futboleko TLaren kontrol subjektiborako: arnas aparatuen RPE (sRPEres) eta muskuluen RPE (sRPEmus) (Los Arcos et al., 2014c). Los Arcos eta lankideek (2014c) RPE galdetegia egokitu zuten arnas aparatuan eta hanketan/muskuluan hautemandako esfortzuaren erantzunak erregistratzeko. Horrela, jokalariek entrenamenduan zein lehiaketan hautemandako esfortzua nondik etor daitekeen jakiteko aukera dago. Bi galdera horien erantzunek talde teknikoak karga maneiatzeko erabiltzen dituen tresnen bidez lorturiko informazioa zehatzagoa izaten lagunduko dute.

Ikerketek erakutsi dute sRPE metodoa fidagarria eta baliagarria dela lesio-arriskua murrizteko eta errendimendua optimizatzeko. Adibidez, errugbi jokalariekin egindako azterlan batean ikusi zen lan-karga handiagoak lesio-arrisku handiagoa ekartzen zuela, hau da, lan-karga eta lesio-arriskua estuki lotuta daudela (Gabbett, 2004). RPE galdetegiak korrelazio handiak erakusten ditu BMaren metodoekin, hala nola Banister, Edwards eta laktato kontzentrazioarekin (Alexiou & Coutts, 2008; Coutts et al., 2007). Ildo beretik, RPEaren eta GPSaren bitartez neurturiko kanpo-kargako neurri batzuen (DT, PL eta intentsitate txikiko lasterketa) artean korrelazio altuak ikus daitezke (Casamichana et al., 2013b; Scott et al., 2013).

2.2. NEKEAREN MONITORIZAZIOA FUTBOLEAN

Futboleko entrenamendu-programa arrakastatsu bat ezartzeko, entrenamendu-estimulu egoki bat behar da, jokalariaren gaitasun fisikoei eta errekupeazio-aldi egokiei dagokienez. Horregatik, entrenamendu-lehiaketako asteetan jokalarien nekearen presentzia eta magnitudea monitorizatzea beharrezkoa da lesioak, errendimendu-galerak eta gainentrenamendu-egoera posiblea saihesteko (Twist & Highton, 2013). Nekea kontrolatzeko zenbait metodo (Heisterberg et al., 2013; Meeusen et al., 2013) iradoki dira, baina haien izaera inbaditzailea (odol-markatzaileak) eta/edo zehatza (test maximoak) dela eta, zaila da horiek maiz kontrolatzea taldeko kirol-ingurunean.

Gaur egun, proba-metodo praktikoagoak iradoki eta ikertu dira, hala nola galdetegi subjektiboak eta funtzio neuromuskularreko jauzi-probak (Gathercole, Sporer, & Stellingwerff, 2015; Kenttä & Hassmén, 1998; Thorpe et al., 2015; Twist & Highton, 2013). Gainera, aipatu behar da TLaren neurketek ezin dutela osasun-egoeraren, nekearen edo errendimenduaren alderdi guztien berri eman, eta, beraz, egokia dirudi galdetegi-eskala subjektiboekin konbinatzea, baita errendimendu-proba eraginkor eta ez-inbaditzaileekin ere.

Atal honetan jokalarien nekea eta errekupeazioa monitorizatzeko futbol munduan gehien erabiltzen diren bi metodori buruz hitz egingo dugu: errekupeazioaren indize-maila (TQR) eta kontramugimendudun jauziaren testa (CMJ).

2.2.1. TQR (Errekupeazioaren Indize-Maila edo Total Quality Recovery)

TQR galdetegia (Kenttä & Hassmén, 1998) hautemandako esfortzu-eskalako Borg-en (RPE) 6–20 kalifikazioen antzekoa da. Futbolean TQR galdetegia erabiltzen da, jokalarien errekupeazioa modu subjektiboan eta erraz baloratu daitekeelako (Brink et al., 2010; Fanchini et al., 2015; Kinugasa & Kilding, 2009). Honako galdetegia egunero erabil daiteke, jokalariek eta entrenatzaileek erraz ebaluatzen baitute. Gainera, galdetegi honek jokalariari errekupeazioa bultzatzeko faktore garrantzitsuen berri ematen dio, esate baterako, aldian-aldian jatea eta behar adina edatea ariketa fisikoaren aurretik eta ondoren.

Bestalde, galdetegi honen erabilera oraindik eta gehiago errazteko, Laurent eta lankideek (2011) TQR galdetegia 10 kalifikaziora egokitu zuten. TQR galdetegia erabiltzeko, jokalariei

entrenamendu-saioa edo partida hasi aurretik galdetzen zaie azken entrenamenduaren edo partidaren esfortzutik nola errekuperatu diren. Horretarako, jokalariek galdera honi erantzun behar diote: “nola berreskuratu duzu?”. Erantzunak: 0tik 10era bitarteko eskalan, 0 oso-oso errekuperazio eskasa eta 10 oso-oso errekuperazio ona.

Ikerketek erakutsi dute TQR metodoa fidagarria eta baliagarria dela jokalarien nekea monitorizatzeko eta errendimendua optimizatzeko. Laurent eta lankideek (2011) frogatu zuten TQR galdetegiaren erantzunak hautemangarriak zirela esprinten errendimendu errepikatuen murrizketarekiko, mantentzearekiko eta hobekuntzarekiko ($r = -0,63$). Izan ere, errekuperazio maila ez-eraginkor batek ez du errendimenduari eusteko aukerarik ematen, eta, aldiz, errekuperazio maila eraginkorrek doitze fisiologikoak ahalbidetzen ditu, errendimenduaren hobekuntza sustatzen dutenak. Ildo beretik, Osiecki eta lankideek (2015) egindako ikerketan frogatu zuten TQR galdetegiak korrelazio handiak erakusten dituela CK (kreatina kinasa) mailarekin. Beraz, aurkikuntza horien arabera, TQR galdetegia jokalarien errekuperazio indize-mailaren iragarpen ona da.

2.2.2. CMJ (Kontramugimendudun jauzia edo Countermovement Jump)

CMJ testa beheko gorputz-adarretako indar esplosiboa baloratzeko prestatzaile fisikoek erabili ohi duten testa da (Malone et al., 2015b; McHugh et al., 2018; McLean et al., 2010; Van Winckel, McMillan, Meert, Berckmans, & Helsen, 2014). Indar esplosiboa, futboleant, potentziaren adierazpen maximoa da, eta beharrezkoa da hainbat ekintza egiteko, adibidez, norabide-aldaketak egiteko, azelerazio eta dezelerazioak egiteko, baloiari jotzeko eta jauziak egiteko. Zenbait ikertzailek ikusi dute CMJaren errendimendua nekearen eta superkompentsazioaren markatzaile objektiboa dela (Balsalobre-Fernández, Tejero-González, & del Campo-Vecino, 2014; Gathercole, Sporer, & Stellingwerff., 2015; Jiménez-Reyes & González-Badillo, 2011).

CMJ testa neurketa sinplea, praktikoa, baliagarria eta fidagarria da. CMJ testa martxan jartzea oso erraza da, eta, neke gehigarririk eragiten ez duenez, Twistek eta Hightonek (2013) planteatzen dute erregularki erabiltzea jokalarien neke neuromuskularra baloratzeko. Gaur egun, Van Winckel eta kolaboratzaileak (2014) haratago doaz, eta, haien aburuz, CMJ testa, jokalarien indar esplosiboa eta neke neuromuskularra ebaluatzeko erabilgarri izateaz gain, egunero erabili beharko genukeen proba da.

Horren ondorioz, ez da harrizkoa CMJ testa prestatzaile fisiko askoren funtsezko proba bihurtu izana. CMJ testa entrenamenduren/lehiaketaren aurretik edota ondoren egin daitekeen proba bat da, eta, proba horretan, testean lorturiko altuera neurtzen da. Bukatzeko, ondorioztatzen da Claudino eta kolaboratzaileek (2016) egindako meta-analisan aurkitu dutela jokalarien neke neuromuskularraren monitorizazioan CMJaren BB altueraren neurketa CMJaren altuerarik altuenaren neurketa baino sentikorragoa dela. Horrenbestez, futbol-jokalarien nekea baloratzeko orduan askoz zehatzagoak izango gara, CMJ testaren bitartez lorturiko BB altueraren neurketa kontuan hartzen badugu.

3. HELBURUAK



3. HELBURUAK

Testuinguru honetan, tesi-proiektu honen helburu orokorra da jokalarien errendimendu fisikoa optimizatu ahalko duen eszenatokia egokitzeko entrenamendu-prozesua eta lehiaketa konektatzea, bai saioen eta bai joko-formatuen kanpo- eta barne-karga deskribatuz. Helburu orokor hori gauzatzeko, eta garatu den marko teorikoa oinarritzat hartuz, hiru helburu espezifiko proposatzen dira argitaratutako lan bakoitzari dagozkionak, hurrenez hurren:

3.1. LEHENENGO HELBURU ESPEZIFIKOA

- Metodo objektibo eta subjektiboen bidez nekea neurtuta, jokalarien TLaren barneko eta kanpoko aldagaien arteko erlazioa aztertzea, lehiaketan lorturiko balio absolutu eta erlatiboen bitartez.

3.2. BIGARREN HELBURU ESPEZIFIKOA

- Osagai nagusien azterketaren (PCA) bidez barneko eta kanpoko intentsitate aldagaien arteko erlazioen egitura ikertzea, eta joko murriztuen zereginen artean nola aldatzen diren zehaztea.

3.3. HIRUGARREN HELBURU ESPEZIFIKOA

- Futbolarien demarkazio bakoitzerako (DC atzelaria da, DEL aurrelaria, DL hegaleko atzelaria, MC erdilaria eta ML hegaleko erdilaria) entrenamenduetako zereginetan lorturiko erantzun fisikoak lehiaketaren datu absolutu eta erlatiboekin aztertzea.

4. HIPOTESIAK



4. HIPOTESIAK

4.1. LEHENENGO IKERKETAREN HIPOTESIA

- Lehiaketarekiko entrenamendu-eskaerak balio erlatiboetara normalizatzea estrategia egokia izan daiteke jokalariaren nekea eta errekupeazio maila interpretatzeko, TLaren preskripzioan erabaki egokiak hartzen laguntzeko.

4.2. BIGARREN IKERKETAREN HIPOTESIAK

- PCA analisiaren bidez funtsezko informazioa lortzeko behar den gutxieneko aldagai-kopurua zehaztu daitezkeela hipotetizatzen da, eta hala, TL aztertzeke informazio erredundantea alde batera uztea, eta prestatzaile fisikoen esfortzua aurrezten eta haien analisisien kalitatea handitzen laguntzeko.
- Entrenamendu-arietek antzeko eskaera fisiko-fisiologikorik ez badakarte, entrenatzaileei lagundu ahal izango lieke entrenamendu-saioak diseinatzeke orduan, jokalarientzat pertsonalizaturiko dosi egokiak eskainiz.

4.3. HIRUGARREN IKERKETAREN HIPOTESIA

- Lehiaketari dagokion jarduera-profilak eta jokalariek zelaian duten kokapenak markatu lezakete lehiaketaren behar partikularrei emango zaien erantzunaren gradua entrenamendu saioko eta kokapen bakoitzerako.

5. BALIABIDE METODOLOGIKOAK



5. BALIABIDE METODOLOGIKOAK

Doktorego-tesiaren atal honetan hiru ikerketetan erabilitako metodologiaren laburpena garatzen da. Erabilitako baliabide metodologikoak oso baliagarriak izan dira tesiaren helburuak betetzeko.

5.1. DISEINUA

Doktorego-tesi honetarako hartu eta erabili diren datuak 2015-2016 eta 2016-2017 denboraldiko mikrozikloetako entrenamendu-saioei eta partidei dagozkie. Lehenengo ikerketa, 2015/2016 denboraldiko lehiaketa aldian (martxotik - apirilera) —hau da, 34. mikroziklotik 41. mikroziklora (zortzi aste, baina ikerketaren analisirako sei mikroziklo besterik ez ziren erabili saio guztiak osorik ez zeudelako)— egin zen. Bigarren eta hirugarren ikerketak, ordea, 2016/2017 denboraldiko lehiaketa aldian (otsailetik - apirilera eta urtarriletik - apirilera) —hau da, bigarren ikerketa 30. mikroziklotik 37. mikroziklora (zortzi aste), eta hirugarren ikerketa, 28. mikroziklotik 37. mikroziklora (hamar aste)— egin ziren.

Doktorego-tesia diraun bitartean entrenamendu-saio eta lehiaketa-partida guztiak pulstometro eta GPSen bidez monitorizatu ziren. Lehenengo ikerketan pulstometro eta GPSen bidez lortutako datuak erabili ziren, eta guztira 250 erregistro 20 entrenamendu-saiotan (jokalari bakoitzeko 16.7 ± 3.6) eta 72 erregistro zortzi lehiaketa-partidatan (jokalari bakoitzeko 4.9 ± 2.1) analizatu genituen. Banakako entrenamendu-saio- edo lehiaketa-partida-erregistroak mikroziklotan multzokatu ziren, eta guztira 69 erregistro lortu ziren (jokalari bakoitzeko 4.6 ± 1.3). Lehiaketaren inguruan genituen datu guztiak partida bakar batera (90 minutura) normalizatu genituen, jokalarari bakoitzaren lehiaketako jarduera-profila lortzeko. Horrela, asteko TLaren % metatua lortu genuen. Jarraituz, bigarren ikerketan ere, pulstometro eta GPSen bidez lorturiko datuak ikertu genituen, eta horretarako, entrenamendu-saioetan eginiko zortzi joko formatu (1. taula) ezberdin ikertu genituen. Guztira 698 ariketa-erregistro eskuragarri izan genituen 16 entrenamendu-saiotan (jokalari bakoitzeko 43.6 ± 1.3). Ondoren, hirugarren ikerketan bakarrik GPSen bidez lortutako entrenamendu-saioen eta lehiaketa-partiden datuak erabili ziren. Datu guztiak batuta 467 erregistro (2. taula) 12 entrenamendu-saiotan (jokalari bakoitzeko 29.2 ± 10.7) eta 81 erregistro 10 lehiaketa-partidatan (jokalari bakoitzeko 5.1 ± 3.8) aztertu genituen. Jokalarari bakoitzari —DT eta PL aldagaien— lehiaketa eskariaren BBren balioa kalkulatzeko, partidako balioak 90 minutura normalizatu genituen. Amaitzeko, esan behar da doktorego-tesi honetan aztertutako joko formatu guztiak ikertzaileek ez zituztela proposatu. Izan ere,

joko formatu horiek entrenamendu-prozesuan ohikoak ziren eta jokalaria guztiak formatu ezberdin horietara ohituta zeudela.

1. taula

Lau entrenamendu-zereginen ezaugarrien deskribapena: joko murriztu txikiak (SSG), joko murriztu ertainak (MSG), joko murriztu handiak (LSG) eta entrenamendu-partida (SG).

Formatuak	Taldeko jokalaria kopurua (n)	Erregistroak (n)	Jokalaria bakoitzeko espazio erlatiboa (m ²)	Serieak (n)	Iraupena (min:seg)
SSG	3	25	≈ 84	4	≈ 3:30
	4	216	≈ 132	3	≈ 3:00
MSG	5	238	≈ 105	4	≈ 5:00
	6	28	≈ 130	4	≈ 6:30
LSG	7	26	≈ 247	2	≈ 17:00
	8	60	≈ 272	3	≈ 13:00
	9	44	≈ 235	2	≈ 15:00
SG	10	61	≈ 300	2	≈ 19:00

Oharra: joko murriztu txikia (SSG), joko murriztu ertaina (MSG), joko murriztu handia (LSG) eta entrenamendu-partida (SG).

2. taula

Lau entrenamendu-zereginen ezaugarrien deskribapena

Formatuak	Taldeko jokalaria kopurua (n)	Jokalaria bakoitzeko espazio erlatiboa (m ²)	Serieak (n)	Iraupena (min:seg)	Erregistroak (n)
PE	10	300.0	2	18:42	88
JRL	8	268.8	2	12:48	130
JRM	6	129.8	3	8:36	28
JRP	4	132.7	4	2:48	221

Oharra: joko murriztu txikia (JRP), joko murriztu ertaina (JRM), joko murriztu handia (JRL) eta entrenamendu-partida (PE).

5.2. PARTE-HARTZAILEAK

Doktorego-tesi honetan Beasain Kirol Elkarteko hirugarren mailako 33 gizonzkoen futbol-jokalaria erdiprofesionalek hartu zuten parte. Jokalari horiek Espainiako Ligako hirugarren mailako IV. multzoan jokatzen zuten. Jokalariak astean 3-4 (270-360 min) entrenamendu-saio egin zituzten, eta asteburu bakoitzean partida ofizial bat (90 min) jokatu zuten. Hiru ikerketak parte-hartzaileen eta klubaren onarpen osoaz egin ziren. Jokalari guztiei ahozko zein idatzizko azalpenak eman zitzaizkien, eta garbi azaldu zitzaizkien ikerketaren helburuak eta garapena, baita bertatik eratorri zitezkeen arazo eta onura potentzialak ere. 33 jokalaritik 21ek onarpen-agiri bat sinatu zuten, eta ikerketan parte hartzeko adostasuna adierazi zuten. Hala ere, nahiz eta baimen informatua sinatu, edozein momentutan ikerketa lagatzeko aukera ere bazutela azaldu zitzairen.

Parte-hartzaileen kopurua zehazteko, lehendabizi aipatu, datu-bilketa bi alditan egin zela: 2015-2016 eta 2016-2017 denboraldietan. Hori dela eta, bi denboraldi horietan Beasaingo hirugarren mailako taldean zeuden jokalariek parte hartu zuten ikerketan, denak zelaiko jokalaria. Hamar jokalaria izan ziren bi datu-bilketetan errepikatu zutenak. Lehenengo datu-bilketan, 20 jokalaritik 15ek sinatu zuten beren datuak erabiltzeko baimena: 5 atzelari, 8 erdilari eta 2 aurrelari; adina = 25.2 ± 3.0 urte; altuera = 177.8 ± 5.6 cm; pisua = 76.9 ± 6.5 kg; eta Möhr-en formularen bidez lortutako gorputzeko gantzaren ehunekoa = $11.6 \pm \% 2.7$. Bigarrenean, aldiz, 23 jokalaritik 16k sinatu zuten baimena: 4 atzelari, 2 hegaleko erdilari, 5 erdilari, 3 hegaleko erdilari eta 2 aurrelari; adina = 25.1 ± 3.7 urte; altuera = 178.3 ± 5.0 cm; pisua = 74.6 ± 7.9 kg; eta Möhr-en formularen bidez lortutako gorputzeko gantzaren ehunekoa = $10.8 \pm \% 2.2$.

Prozedura guztiak Helsinkiko Deklarazioak zehaztutako jarraibideei segituz egin ziren, Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako Lege Organikoa errespetatuz. Doktorego-tesi honetako hiru ikerketak Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) Etika Batzordearen onespenezkin burutu ziren (*M10/2015/303 kodearekin*).

5.3. ALDAGAIK

Hirugarren taulan, hiru artikuluetan erabilitako aldagaien laburdurak, unitateak eta horiek zein artikulutan azaldu diren ageri da:

3. taula

Doktorego-tesian ikerturiko aldagaien informazioa

BARNEKO KARGA		
<i>Aldagaiaren laburdura</i>	<i>Unitatea</i>	<i>Artikulua</i>
ED	AU	1.
>%90 HRmax	min	1.
%80-90 HRmax	min	1.
%50-80 HRmax	min	1.
EDWmin	AU*min ⁻¹	2.
T > %80 HRmin	min*min ⁻¹	2.
KANPOKO KARGA		
<i>Aldagaiaren laburdura</i>	<i>Unitatea</i>	<i>Artikulua</i>
TD	m	1.
TD80	m	1.
PL2D	AU	1.
TDD < - 2	m	1.
TDA > 2	m	1.
Vmax	km*h ⁻¹	2.
D <%60min	m*min ⁻¹	2.
D >%60min	m*min ⁻¹	2.
D >%80min	m*min ⁻¹	2.
DTmin	m*min ⁻¹	2.
PLmin	AU*min ⁻¹	2.
Dacc > 2min	m*min ⁻¹	2.
Ddec < -2min	m*min ⁻¹	2.
DTmin	m*min ⁻¹	3.
%DT	m*min ⁻¹	3.
PLmin	AU*min ⁻¹	3.
%PL	AU*min ⁻¹	3.

NEKE NEUROMUSKULARRA

<i>Aldagaiaren laburdura</i>	<i>Unitatea</i>	<i>Artikulua</i>
CMJmax	cm	1.
CMJpost	cm	1.
CMJpre	cm	1.
FATabs	%	1.
FATrel	%	1.

ESFORTZUAREN PERTZEPZIO SUBJEKTIBOA

<i>Aldagaiaren laburdura</i>	<i>Unitatea</i>	<i>Artikulua</i>
RPEres	AU	1.
RPEmus	AU	1.
sRPEres	AU	1.
sRPEmus	AU	1.

ERREKUPERAZIOA INDIZE-MAILA

<i>Aldagaiaren laburdura</i>	<i>Unitatea</i>	<i>Artikulua</i>
TQRpost	AU	1.
TQRpre	AU	1.
TQRcomp	AU	1.

Aldagaiak baloratzeko erabilitako moduak hiru izan ziren. Lehenengo ikerketan, lehenengo modua erabili genuen, hau da, kargaren eta nekearen arteko korrelazioak aztertzeko, bai astean metatutako balio absolutuak bai banakako lehiaketaren jarduera-profilera normalizatutako balio erlatiboak erabili genituen. Balio absolutua jokalaria batek egindako distantzia (12.000 metro) da, eta balio erlatiboa, behin lehiaketaren jarduera-profila lortuta asteko TLaren % metatua da. Adibidez, jokalaria batek partida batean 10.000 metro egiten baditu, eta asteko TLAN metatutako balioa 12.000 metro balira, balio erlatiboa %120 dela esango genuke.

Bigarren moduan —hau da, iraupenaren balio erlatiboa— aldagaiak erlatibizatuak eta praktika-minututan adieraziak izan ziren. Iraupenaren balio erlatiboa jokalaria batek entrenamenduko ariketa-denboraren minutu bakoitzeko egindako DT ($m \cdot \text{min}^{-1}$) horren BB da. Modu praktikoan, jokalaria

batek lau minutuko iraupena duen entrenamendu-ariketa batean 400 metro egiten baditu, jokalaria horren iraupenaren balio erlatiboa $100 \text{ m} \cdot \text{min}^{-1}$ izango zatekeen. Orain berri azalduriko modu hori bigarren artikuluan ikerturiko aldagai guztiakin, V_{\max} aldagaiarekin izan ezik, erabili genuen, eta baita hirugarren ikerketako aldagaiekin ere.

Azkenik, lehiaketarekiko iraupenaren balio erlatiboa modua azaltzea falta da. Modu honetan jokalarien iraupenaren balio erlatiboa banakako lehiaketaren jarduera-profilera normalizatuta ikertzen da, lehenengo eta bigarren moduaren arteko konbinaketatik sortzen den terminoa da. Adibide gisa, jokalaria batek lehiaketa baten BBan minutuko 100 metroko distantzia egiten badu, jokalaria horren lehiaketeren jarduera-profilaren balio erlatiboa $100 \text{ m} \cdot \text{min}^{-1}$ izango zen, eta analizaturiko entrenamendu-ariketetan eginiko distantzia $120 \text{ m} \cdot \text{min}^{-1}$ balitz, jokalaria honen lehiaketarekiko iraupenaren balio erlatiboa %120 litzateke. Honako hirugarren modua doktorego tesia osatzen duen azkeneko ikerketan erabili genuen.

5.4. PROZEDURA

5.4.1. PULTSOMETRO ETA GPS GAILUAK

Datu-bilketan lorturiko erregistro guztiak pultsometro eta GPS gailuen bidez monitorizatu ziren. Jokalaria guztiak zuten pultsometro eta GPS gailuen berri. Ikerketa hasi aurretik, jokalariek bi proba egin zituzten: batetik, erresistentzia progresibo maximoko proba bat egin zuten korrika egiteko zinta batean (laborategian), jokalaria bakoitzaren BM_{\max} kalkulatzeko (Graff, 2002), eta bestetik, 40 metroko abiadura-proba bat entrenamendu-eremuan, GPS gailuak jantzita zituztela, jokalaria bakoitzaren abiadura maximoa (V_{\max}) neurtzeko (Roe et al., 2017).

Barneko karga BM sentsoreen bitartez erregistratu zen (Dellal et al., 2012a; Macleod & Sunderland, 2012), bost segundoan irismen laburreko telemetria-sistema baten bidez (Polar Team Sport System, Polar Electro Oy, Finlandia). Kanpoko karga 10 Hz-eko frekuentzian funtzionatzen duten eta 100 Hz-eko azelerometro triaxiala duten GPS S4 gailuak erabiliz monitorizatu zen (Minimax v.4.0, Catapult Innovations, Victoria, Australia). GPS gailua jokalaria bakoitzaren goiko aldera doitu zen, arnes berezi bat erabiliz. GPS gailuak entrenamendu edo partida bakoitza hasi baino 15 minutu lehenago aktibatu ziren, fabrikatzailearen jarraibideei jarraituz.

Pultsometro eta GPS gailuek erregistratutako datuak ordenagailu batera deskargatu ziren, Sprint v5.1.4 softwarearekin aztertzeko (Catapult Innovations, Victoria, Australia, 2010). Doktorego-tesi honetarako erabili diren gailuen fidagarritasuna eta baliozkotasuna aurreko lanetan adierazi ziren (Castellano et al., 2011; Gale-Ansodi, Langarika-Rocafort, Usabiaga, & Castellano, 2016; Johnston et al., 2013). Datuak biltzean izandako satelite-kopuruaren BB eta desbideratze estandarra (\pm SD) 12.5ekoa (\pm 0.6) izan zen.

5.4.2. NEKE NEUROMUSKULARRA

Neke neuromuskularra ebaluatzeko, aurreko lanetan bezala (McLean et al., 2010), proba bat egin zen (kontramugimendudun jauzia, CMJ), aurrez balioztatutako My Jump v.1 aplikazioa erabiliz (Balsalobre-Fernández, Glaister, & Lockett, 2015).

Kontramugimendudun jauziaren testa egiteko, subjektuak zutik egongo dira. Oinak gutxi gorabehera aldaken zabaleraren parean jarri behar dira, ahaztu gabe oin-zolak lurrarekin kontaktuan daudela. Gorputz-enborra tente mantenduko da, eta eskuak gerrian bermatuta proba amaitu arte. Hasierako posizioari bi-hiru segundoz eutsi eta gero, subjektuak makurtzen hasiko dira, belauen flexio-angeluarekin 90 eta 120 graduren artean, eta jarraian, gelditu gabe, belauak luzatuko dituzte ahalik eta jauzi bertikal altuena egiteko. Jauziaren lurreratzean belauak ahalik eta luzatuen mantendu behar dira, eta oin-zolak tolestuta. Jarraitu den protokoloa Malone eta lankideek (2015b) deskribaturikoaren antzekoa da. Proba egin baino lehen, jokalariek beroketa bat egiten zuten: intentsitate baxuko 5 minutuko lasterketa jarraitua, ariketa dinamikoak, eta 20 metroko bi progresio, eta, ondoren, jauziaren hiru errepikapen.

Neurketa hauetatik bi aldagai atera ziren: jauzirik altuena (zentimetro, cm) eta hiru jauzien BB (cm). Aurrerantzean, jauzirik altuenari hoberena deituko zaio. Jokalari bakoitzaren CMJ maximoa (CMJmax) kalkulatzeko, esku-hartze osoan egindako 14 probetan lortutako jauzirik onena erabili zen. CMJ testa asteko lehen entrenamendu-egunean (partidatik gutxienez 48 ordura, CMJpost) zein azkenekoan (hurrengo partida baino 24 ordu lehenago, CMJpre) erregistratu zen. Proba beti gimnasioan egin zen; jokalariai aldezturik proba ezagutzen zuten eta probaren prozedurarekin ohituta zeuden. CMJ proba bakoitzaren aldakuntza-koefizientea (CV) % 0.0tik % 7.7ra bitartekoa izan zen.

5.4.3. ESFORTZUAREN PERTZEPZIO SUBJEKTIBOA

Esfortzuaren balorazio subjektiboa analizatzeko, kirolariei eskatu zitzaien, entrenamendua edota partida amaitu ondoren eta aurretik azalduko RPE eskalaren bidez, hautemandako esfortzuaren neke-maila adierazteko. Erabilitako RPE galdetegiak Borg-en eskalaren gaztelaniazko itzulpena izan zen, 0-10 puntukoa, Foster-ek aldatua (Foster et al., 2001) eta Los Arcos eta lankideek (2014c) egokitua, arnas aparatuan eta hanketan/muskuluan hautemandako esfortzuaren erantzunak erregistratu ahal izateko. Jokalariak, zalantzarik izanez gero, + bat jar zezaketen unitate-erantzunaren ondoan (adibidez, 5+; horrek 5.5 esan nahi du). Entrenamendu-saioa edo partida amaitu eta 10 minutura egin zen ebaluazioa (Ngo et al., 2011). Ondoren, eskala bakoitzean lortutako balioa saioaren edo partidaren iraupenarekin biderkatu zen (beroketa eta atsedenaldirik barne, baina luzaketak kanpo utzita), aldagai hauek lortzeko (sRPEres eta sRPEmus).

5.4.4. NEKE SUBJEKTIBOA

Errekuperazioaren indize-maila (TQR) galdetegiaren eskala (Kenttä & Hassmén, 1998) neurri subjektibo gisa erabili zen jokalariek jasandako nekea ebaluatzeko. Entrenamendu zein partidaren aurreko beroketa-ariketak egin baino 10 minutu lehenago TQR galdetegiak pasatzen zitzaien. Horretarako, jokalariek galdera honi erantzun behar zioten: “nola berreskuratu duzu?”. Erantzunak: 0tik 10era bitarteko eskalan, 0 oso-oso erredukzio eskasa eta 10 oso-oso erredukzio ona.

5.4.5. MATERIALAK ETA PROTOKOLOAK

Hiru ikerketen datu-bilketak egiteko erabili ziren materialen eta protokoloen informazioa modu laburrean beheko taulan azaltzen da deskribatuta:

4. taula

Datu-bilketarako erabilitako testen protokoloen eta materialen deskribapena

BIHOTZ-MAIZTASUN MAXIMOAREN TESTA		
Testa	Protokoloa	Materiala
BMmax	Graff, 2002	<ul style="list-style-type: none"> - Korrika egiteko zinta, EG2 ERGelek - BM sentsoreak, Polar Team Sport System, Polar Electro Oy, Finland
ABIADURA MAXIMOAREN TESTA		
Testa	Protokoloa	Materiala
Vmax	Roe et al., 2017	<ul style="list-style-type: none"> - Minimax v.4.0, Catapult Innovations Victoria, Australia
KONTRAMUGIMENDUDUN JAUZIAREN TESTA		
Testa	Protokoloa	Materiala
CMJ	Malone et al., 2015b	<ul style="list-style-type: none"> - Iphone 6S - My Jump v.1 app
ESFORTZUAREN PERTZEPZIO SUBJEKTIBOAREN ESKALA		
Galdetegia	Protokoloa	Materiala
RPE	Los Arcos et al., 2014c	<ul style="list-style-type: none"> - Orri bat - Boligrafo bat
ERREKUPERAZIOAREN INDIZE-MAILAREN ESKALA		
Galdetegia	Protokoloa	Materiala
TQR	Kenttä eta Hassmén, 1998	<ul style="list-style-type: none"> - Orri bat - Boligrafo bat

5.5. ANALISI ESTADÍSTIKOA

Lehenengo ikerketan, aldagai fisikoen, fisiologikoen eta esfortzu-pertzepzioaren aldagaien balio erlatiboetatik abiatuta, korrelaziozko teknika analitikoak ezarri ziren eredu orokorraren linearen barruan. Emaitzak BB eta \pm SD gisa adierazi ziren. Pearson-en korrelazio-koefizientea (eta dagozkion % 95eko konfiantza-tarteak, % 95eko KT) aztertutako aldagaien artean erlaziorik badagoen eta horren erlazioa esanguratsua den zehazteko kalkulatu zen. Emaitzak interpretatzeko Salaj eta Markovic-ek (2011) Pearson-en korrelazio-koefizienterako proposaturiko atalase-balioak erabili ziren: txikia ($r \leq 0.3$), moderatua ($0.3 < r \leq 0.7$) eta altua ($r > 0.7$). Analisi estatistikoa SPSS v.23 pakete estatistikoarekin egin zen (IBM corp., Chicago, IL, U.S.A.). Adierazgarritasuna 0.05ean ($p < 0.05$) finkatuko da.

Bigarren ikerketan, entrenamendu-jokoen datu estatistiko deskribatzaileak BBren eta \pm SDren bidez aurkeztu ziren. Gainera, magnitudean oinarritutako inferentziak erabili ziren datuak aztertzeko, Batterham eta Hopkins-en gomendioak kontuan hartuta (Batterham & Hopkins, 2006). SSG, MSG, LSG eta SG formatuen arteko aldeak BB diferentzia estandarizatuak erabiliz ebaluatu ziren (Cohen-en d eta konfiantza-mugen % 90). Efektu estandarizatuaren (ES) tamainarako interpretazio-atalaseak hauek izan ziren (Batterham & Hopkins, 2006): < 0.2 (Tribiala), 0.2-0.6 (txikia), 0.6-1.2 (ertaina), 1.2-2.0 (luzea) eta > 2.0 (oso luzea).

Osagai nagusien analisisia (PCA) aztertu aurretik, Pearson-en korrelazio-matrizea egin zen, entrenamenduko kanpo- eta barne-intentsitateko hamar aldagairekin eta datuak faktorizatze gaitasunaren ikuskapen bisuala erabiliz (Tabachnick & Fidell, 2007). Metodo horren helburua datuen osagai edota aldagai garrantzitsuenak identifikatzea da, informazioa murriztu gabe. Kaiser-Meyer-Olkin (KMO) metodoa kanpo-kargako hamar aldagaiak PCArako egokiak ote ziren egiaztatze erabili zen, hau da, 0.5 (Kaiser, 1960). Lau joko-formatuetako KMOren balioak 0.54, 0.516, 0.514 eta 0.522 izan ziren, hurrenez hurren, SSG, MSG, LSG eta SGrentzat, eta horrek erakusten du datu multzoa egokia dela PCarentzat.

Bartletten esferikotasun-proba esanguratsua izan zen entrenamenduko joko-formatu bakoitzerako adierazgarria ($p < 0.001$). Ardatz nagusiaren metodoa osagaiak ateratzeko erabili zen. Bat baino balio propio txikiagoak zituzten osagaiak ez ziren berriro erauzi (Kaiser, 1960). Oso korrelazionatuta ez zeuden osagaiak identifikatzeko PCA metodoa VariMax errotazioarekin aplikatu

zen. Aipaturiko errotazio hori 9×1 osagaien kargak errazago interpretatzeko helburuarekin egin zen. PCAREN kalkuluan parte hartu zuten etapak aurretik erabilitakoen berdina izan ziren (Weaving, Marshall, Earle, Nevill, & Abt, 2014). Lorturiko osagai nagusi bakoitzerako Weaving eta lankideen (2014) metodoei jarraituz, osagai nagusia 0.7 baino handiagoa zuten jatorrizko aldagaiak baino ez ziren kontuan hartu interpretaziorako.

Azkenik, joko-formatu bakoitzerako kanpo- eta barne-kargako aldagaien arteko korrelazioa neurtu zen. Hopkins-i jarraituz, korrelazio kualitatiboko deskribatzaile hauek erabili ziren: tribiala (0-0.09), txikia (0.1-0.29), ertaina (0.3-0.49), handia (0.5-0.69), oso handia (0.7-0.89), ia perfektua (0.9-0.99), eta perfektua (1) (Hopkins, 2000). Ikerketaren analisia egiteko gizarte-zientziaren pakete estatistikoa erabili zen (SPSS, 24.0 bertsioa Windowsentzat; SPSS Inc, Chicago, IL) eta JASP 0.7.5 bertsioa (Love et al., 2015).

Hirugarren ikerketan, lehenik, joko murriztuen (SSG, MSG eta LSG) eta entrenamendu-partiden (SG) analisi deskribatzailea egin zen, BB eta \pm SD erabiliz. Ondoren, magnitudean oinarritutako inferentziak erabili ziren datuak aztertzeko, Batterham eta Hopkins-ek (2006) aholkatu bezala. JR eta PE formatuen arteko aldeak demarkazio bakoitzerako BB diferentzia estandarizatuak erabiliz ebaluatu ziren (Cohen-en d eta konfiantza-mugen % 90). Efektu estandarizatuaren (ES) tamainarako interpretazio-atalaseak hauek izan ziren (Batterham & Hopkins, 2006): < 0.2 (tribiala), 0.2-0.6 (txikia), 0.6-1.2 (ertaina), 1.2-2.0 (luzea) eta > 2.0 (oso luzea). Erabili ziren informatika-programak hauek izan ziren: Windows-erako SPSS v.24.0 pakete estatistikoa (SPSS Inc, Chicago, IL) eta Microsoft Excel analisiak egiteko.

6. EMAITZAK



6. EMAITZAK

6.1. LEHENENGO IKERKETA

Bosgarren taulan, jokalariek jokaturiko partidetak aldagai bakoitzaren balioen BB eta \pm SDen datuak azaltzen dira, eta baita mikrozikloetan metaturiko kargaren balioak ere. Bestalde, aipatu behar da astean zehar jasandako TLaren balioak lehiaketaren behar partikularrei normalizatuak daudela. Ikus daitekeenez, aztertutako aldagai guztietan, TD80 izan ezik, pilatutako asteko karga lehiaketaren BB karga baino handiagoa izan zen (% 100eko balioak esan nahi du lehiaketaren eskaerak errepikatu egiten direla aldagai horretarako).

5. taula

Lehiaketaren behar partikularrei normalizaturiko entrenamendu-kargen BB eta \pm SD

Aldagaiak (unitatea)	Lehiaketaren karga (unitatea)		Entrenamenduaren karga (%)	
	BB	\pm SD	BB	\pm SD
TD (m)	9061.5	935.5	151.4%	40.4%
TD80 (m)	99.9	66.7	48.7%	39.6%
PL2D (AU)	534.7	83.2	177.7%	45.6%
TDD<-2 (m)	220.3	49.5	145.5%	43.8%
TDA>2 (m)	303.6	66.1	157.7%	42.3%
ED (AU)	345.4	31.5	144.5%	46.3%
>%90 HRmax (min)	17.7	13.3	112.2%	122.6%
%80-90 HRmax (min)	39.6	8.8	102.6%	38.6%
%50-80 HRmax (min)	25.4	13.9	693.8%	478.0%
RPEres (AU)	6.5	1.2	177.9%	56.4%
RPEmus (AU)	6.8	1.3	167.2%	46.4%
sRPEres (AU)	581.9	103.9	165.1%	59.6%
sRPEmus (AU)	611.3	114.7	158.3%	48.3%

Oharra: TD distantzia totala da; PL2D, jokalariaen karga bi dimentsiotan neurtua; TD80, abiadura maximoaren (V_{max}) % 80tik gora egindako TD; $TDD < -2$, TDan egindako -2 m/seg^2 beherako dezelerazioa; $TDA > 2$, TDan egindako 2 m/seg^2 gorako azelerazioa; ED, Edwards; $> \% 90HR_{max}$, bihotz-maiztasun maximoaren % 90 baino gorago igarotako denbora; $\% 80-90HR_{max}$, bihotz-maiztasun maximoaren % 80-90 bitartean igarotako denbora da; $\% 50-80HR_{max}$, bihotz-maiztasun maximoaren % 50-80 bitartean igarotako denbora; RPEres, arnas aparatuan hautemandako esfortzuaren erantzuna; RPEmus, muskuluan hautemandako esfortzuaren erantzuna; sRPEres, saioaren iraupena eta arnas aparatuan hautemandako esfortzua erantzunaren arteko biderketan lorturiko balioa; eta sRPEmus saioaren iraupenaren eta muskuluan hautemandako esfortzua erantzunaren arteko biderketan lorturiko balioa da.

Seigarren taula honetan, CMJ proba-testaren eta TQR galdetegiaren datuak azaltzen dira. CMJ testaren bitartez beste bi aldagai lortzen ditugu: bata neke muskular absolutua (FATabs) eta bestea neke muskular erlatiboa (FATrel). TQR galdetegiari dagokionez, lehiaketa aurreko erantzunetan jokalariek balio altuagoak eman dituzte astean zehar emandakoetan baino.

6. taula

Nekearen aldagai objektibo eta subjektiboen datuen BB eta $\pm SD$

	CMJpost (cm)	CMJpre (cm)	CMJmax (cm)	FATabs (%)	FATrel (%)	TQRpost (AU)	TQRpre (AU)	TQRcomp (AU)
BB	34.8	34.7	37.4	0.93	0.99	7.34	7.44	7.91
$\pm SD$	3.6	3.6	3.4	0.04	0.05	1.80	1.26	1.25

Oharra: CMJpost lehiaketaren ostean asteko lehenengo entrenamenduan egindako kontramugimendudun jauzien testa da; CMJpre, lehiaketaren aurretik egindako kontramugimendudun jauzien testa; CMJmax, kontramugimendudun jauzien testean jauzi maximoaren balioa; FATabs, neke objektiboa termino absolutuetan; FATrel, neke objektiboa termino erlatiboetan; TQRpost, asteko lehenengo entrenamenduan erantzundako galdetegiaren aldagaia; TQRpre, lehiaketaren aurreko asteko azkeneko entrenamenduan erantzundako galdetegiaren aldagaia; eta TQRcomp lehiaketan erantzundako galdetegiaren aldagaia da.

Zazpigarren taulan, neke objektiboaren eta subjektiboaren eta 13 aldagaien arteko korrelazioak azaltzen dira. Neke objektiboak (FATabs eta FATrel) barne- eta kanpo-kargen aldagai gutxi batzuekin bakarrik korrelazionatu ziren, balio absolutu eta erlatiboetan ebaluatu zirenean. Ikerketan neurturiko FATabs eta $TDA > 2$ aldagaien artean korrelazioa moderatua dela ikus daiteke, eta FATabs-ekin nabarmen korrelazionatuta dauden gainerako aldagaiek korrelazio baxuak dituzte. Bestalde, balio erlatiboek korrelazio altuagoak erakusten dituzte lehiaketaren eskaerekin, balio absolutuek baino. Azkenik, neke subjektiboak (TQRpre eta TQRcomp) korrelazio moderatuak aurkezten ditu BMaren hiru aldagaiekin.

7. taula

Nekearen aldagai objektibo eta subjektiboen eta karga-aldagaien arteko korrelazioak

ALDAGAIK	FATabs		FATrel		TQRpre		TQRcomp	
	Rel	Abs	Rel	Abs	Rel	Abs	Rel	Abs
TD	-.279*	-.234	-.233	-.186	-.046	-.079	-.190	-.199
PL2D	-.272*	-.153	-.192	-.095	.000	.233	-.144	.015
TD80	-.178	-.221	-.161	-.277*	-.034	.016	.095	.055
TDD<-2	-.294*	-.278*	-.251	-.241	-.029	-.089	-.135	-.234
TDA>2	-.309*	-.283*	-.227	-.234	-.036	-.154	-.134	-.250
ED	-.170	-.138	-.123	-.129	.195	.215	.075	.109
>%90 HRmax	.074	.042	.079	-.067	.233	.436**	.193	.288*
%80-90 HRmax	.031	-.072	.007	-.033	.350**	.081	.337*	.164
%50-80 HRmax	.061	-.302*	-.090	-.219	.114	-.186	.146	-.268*
RPEres	-.039	-.085	-.045	.096	.022	-.039	.051	.101
RPEmus	-.186	-.176	-.086	-.057	-.021	-.164	-.052	-.163
sRPEres	-.166	-.214	-.141	-.012	-.037	-.096	-.032	.021
sRPEmus	-.287*	-.283*	-.174	-.146	-.086	-.215	-.120	-.226

Oharra: TD distantzia totala da; PL2D, jokalariaen karga bi dimentsiotan neurtua; TD80, abiadura maximoaren (Vmax) % 80tik gora egindako TD; TDD<-2, TDan egindako -2 m/seg⁻² beherako dezelerazioa; TDA>2, TDan egindako 2 m/seg⁻² gorako azelerazioa; ED Edwards da; >%90 HRmax, bihotz-maiztasun maximoaren % 90 baino gorago igarotako denbora; %80-90 HRmax, bihotz-maiztasun maximoaren % 80-90 bitartean igarotako denbora; %50-80 HRmax, bihotz-maiztasun maximoaren % 50-80 bitartean igarotako denbora; RPEres, arnas aparatuan hautemandako esfortzuaren erantzuna; RPEmus, muskuluan hautemandako esfortzuaren erantzuna; sRPEres, saioaren iraupenaren eta arnas aparatuan hautemandako esfortzuaren erantzunaren arteko biderketan lorturiko balioa; eta sRPEmus saioaren iraupenaren eta muskuluan hautemandako esfortzuaren erantzunaren arteko biderketan lorturiko balioa da.

6.2. BIGARREN IKERKETA

Zortzigarren taula honek, zortzi joko-formaturen bidez neurtuta, aldagai fisiko-fisiologikoen BB eta \pm SDk erakusten ditu. Joko-formatuen artean alde handiak egon dira, zehazki: joko-formatu handienek abiadura eskaera handiagoak zituzten (maximoa eta BB); formatu txikiagoek, berriz, azelerazio eta desazelerazio gehiago eskatzen zituzten. BMaren aldagaietatik eratorritako eskakizunak handiagoak izan ziren joko murriztu txiki (SSG) eta ertaintan, joko murriztu handi (LSG) eta entrenamendu-partidekin (SG) alderatuta.


8. taula

Zortzi joko-formaturen TLaren barneko eta kanpoko aldagaien datuen batez bestekoa eta desbideratze estandarrak

Karga neurriak	Aldagaiak (unitateak)	SSG	MSG	LSG	SG
KANPO (eTL)	V_{\max} ($\text{km}\cdot\text{h}^{-1}$)	17.9 ± 2.8	18.9 ± 2.7	24.0 ± 2.7	25.1 ± 2.2
	$D < \%60\text{min}$ ($\text{m}\cdot\text{min}^{-1}$)	94.2 ± 16.9	96.6 ± 14.4	99.0 ± 14.8	100.3 ± 13.8
	$D > \%60\text{min}$ ($\text{m}\cdot\text{min}^{-1}$)	1.6 ± 2.5	3.2 ± 3.7	5.0 ± 2.8	6.2 ± 2.5
	$D > \%80\text{min}$ ($\text{m}\cdot\text{min}^{-1}$)	0.0 ± 0.0	0.1 ± 1.0	0.6 ± 1.0	1.2 ± 1.3
	DTmin ($\text{m}\cdot\text{min}^{-1}$)	95.8 ± 18.0	100.1 ± 15.5	104.7 ± 16.0	107.6 ± 14.4
	PLmin ($\text{AU}\cdot\text{min}^{-1}$)	11.9 ± 2.9	11.2 ± 2.4	9.8 ± 2.0	10.0 ± 1.9
	Dacc>2min ($\text{m}\cdot\text{min}^{-1}$)	4.6 ± 1.3	4.4 ± 1.6	3.6 ± 1.0	3.4 ± 0.9
	Ddec<-2min ($\text{m}\cdot\text{min}^{-1}$)	3.1 ± 1.3	3.1 ± 1.3	2.8 ± 0.9	2.6 ± 0.8
BARNE (iTL)	EDWmin ($\text{AU}\cdot\text{min}^{-1}$)	3.3 ± 1.5	3.6 ± 1.0	3.1 ± 1.0	3.2 ± 0.7
	$T > \%80\text{HRmin}$ ($\text{min}\cdot\text{min}^{-1}$)	0.3 ± 0.4	0.7 ± 1.2	0.3 ± 0.5	0.2 ± 0.4

Oharra: SSG3vs3 (hiru jokalaritako talde bakoitzeko) da; MSG4vs4, 5vs5, and 6vs6 joko-formatuak dira; LSG7vs7, 8vs8, eta 9vs9 joko-formatuak eta SG entrenamenduetan egiten diren partidak (10 vs 10) dira. V_{\max} abiadura maximoa da; DTmin, distantzia totala; $D < \%60\text{min}$, abiadura maximoaren % 60tik behera egindako DT da; $D > \%60\text{min}$, abiadura maximoaren % 60-80 tartean egindako DT; $D > \%80\text{min}$, abiadura maximoaren % 80tik gora egindako DT; Mmin, minutuko egindako distantzia da; EDWmin Edwards, unitate arbitrarioa minutuko; $T > \%80\text{HRmin}$, bihotz-maiztasun maximoaren % 80 baino gorago igarotako denbora; PLmin, jokalaritako karga minutuko; Dacc>2min, distantzia totalan egindako 2 m/seg⁻² gorako azelerazioa; eta Ddec<-2min distantzia totalan egindako -2 m/seg⁻² beherako dezelerazioa da.


Behoko irudian beha daiteke SG formatuaren eta beste hiru formatuen arteko konparazioa; alderatze hori efektuaren tamainaren bitartez egiten da. Irudiaren behealdeari erreparatuz gero ikus dezakegunez, SG eta LSG formatuen artean ez dago diferentzia nabarmenik. Aztertutako aldagai guztiek magnitude-diferentzia txiki bat erakutsi zuten SGaren eta LSGaren arteko konparazioari dagokionez, baina diferentzia horiek handiagoak eta txikiagoak izan ziren SSG eta MSG formatuekin alderatuz gero. Abiadura-dimentsioa dakarten aldagaiek (adibidez, V_{\max} , $D > \%60\text{min}$, $D > \%80\text{min}$ eta DTmin) efektu handiagoa dute SG formatuekin (eragin ertainetik oso eragin altura); indar-dimentsioa dakarten aldagaiek, aldiz, (adibidez, PLmin, Dacc>2min and Ddec<-2min), SSG eta MSG (eragin baxutik eragin ertainera) formatuekin.



1. irudia

Entrenamendu-partida (SG) formatuen efektuaren tamaina beste hiru joko murriztuekin alderatuta, joko murriztu txikiak (SSG), joko murriztu ertainak (MSG) eta joko murriztu handiak (LSG). Vmax abiadura maximoa da; DTmin, distantzia totala; D<%60min, abiadura maximoaren % 60tik behera egindako DT; D>%60min, abiadura maximoaren % 60-80 tartean egindako DT; D>80%min, abiadura maximoaren % 80tik gora egindako DT; Mmin minutuko egindako distantzia da; EDWmin, Edwards unitate arbitrarioa minutuko; T>%80HRmin, bihotz-maiztasun maximoaren % 80 baino gorago igarotako denbora; PLmin, jokalarikarga minutuk; Dacc>2min, distantzia totalan egindako 2 m/seg² gorako azelerazioa; eta Ddec<-2min, distantzia totalan egindako -2 m/seg² beherako dezelerazioa da.


Osagai nagusiaren azterketari dagokionez, bakoitzaren balio propioak honako hauek izan ziren: 3.79 (PC1), 1.82 (PC2) eta 1.05 (PC3). Osagai nagusi bakoitzak azaldutako erabateko aldaketak honako hauek izan ziren: 37.90, 18.24 eta 10.53, PC1erako, PC2rako eta PC3rako, hurrenez hurren. 2. irudiak barneko TL (iTl) eta kanpoko TL (eTL) intentsitateko hamar aldagaien adierazgarritasuna erakusten du (osagai birakaria).



2. irudia

PCAREN emaitzetan, osagai nagusi bakoitzerako txandakatutako entrenamendu-kargen analisia (0,7tik gorako balioak nabarmentzen dira: PC1ean $d < \% 60 \text{ min} = 0.83$, $PL_{\text{min}} = 0.74$, $DT_{\text{min}} = 0.86$, $D_{\text{acc}} > 2\text{min} = 0.79$ eta $D_{\text{dec}} < -2\text{min} = 0.84$, PC2an $V_{\text{max}} = 0.82$ eta $D > \% 80 = 0.72$, eta PC3an $T80\%HR_{\text{min}} = 0.79$).

Azkenik, 3. irudiak joko-formatu bakoitzak osagai birakarien diagraman duen posizioa erakusten du. Bi faktore nagusi baino ez ziren trazatu joko-formatuen desberdintasunak bisualki irudikatzeko.




3. irudia

Joko-formatuen batez bestekoaren banaketa PC1 eta PC2 analisiaren bidez. Joko-formatuak hauek dira: 3vs3tik edo joko murriztu txikitik (hiru jokalaritako talde bakoitzeko), 10vs10eraino edo entrenamendu-partidetaraino (hamar jokalaritako talde bakoitzeko).

6.3. HIRUGARREN IKERKETA

Laugarren irudi honetan DT eta PL aldagaien BB eta \pm SD erakusten dira. Analisia futbolarien demarkazio eta entrenamendu-zeregin bakoitzeko, eta lehiaketaren datu absolutu eta erlatiboak kontuan edukiz egindakoa da. Joko-formatuei dagokienez —DTmin eta %DT aldagaiak—, joko murriztu handi (JRL) eta entrenamendu-partidetan (PE) jokalariek estimulu gogorragoak zituzten joko murriztu txiki (JRP) eta ertainetan (JRM) baino; PLmin eta %PL aldagaiak, berriz, JRP eta JRM formatuetan. Bestalde, aipatu behar da hegaleko erdilariaren (ML) kokapenak erakutsi dituela DT eta PL aldagaiekiko balio altuenak.



4. irudia

DT eta PL aldagai absolutu eta erlatiboen batez bestekoak eta desbideratze estandarrak, jokalarien demarkazio eta entrenamendu-zereginen arabera bereizita. JRP joko murriztu txikia 4vs4 da (lau jokalaria talde bakoitzeko), JRM joko murriztu ertaina 6vs6 da, JRL joko murriztu handia 8vs8 da, eta PE entrenamendu-partida 10vs10. DTmin distantzia totala termino absolutuetan da, %DT distantzia totala termino erlatiboetan. PLmin jokalaria-karga termino absolutuetan da, %PL jokalaria-karga termino erlatiboetan. DC atzelaria da, DEL aurrelaria, DL hegaleko atzelaria, MC erdilaria eta ML hegaleko erdilaria.

Jokalariek zelaian dituzten postuen eta joko-formatuen arteko konparazioa (efektuaren tamaina kalkulaturaz) bederatzigarren taulan azaltzen da. Ikus daitekeenez, demarkazioen arteko diferentziak aldatu egiten dira ikerturiko aldagaiak balio absolutu (DT, minutuko egindako distantzia, metrotan neurtuta, edo PL, unitate arbitrarioa minutuko) edo erlatiboen arabera (DT eta PL aldagaiak lehiaketaren jardura-profilera normalizatuta, ehunekoa %, alegia) analizatzen baditugu.

Azpirarratzekoa da diferentziak nabarmenagoak direla demarkazioen artean aldagaiak balio absolutuetan alderatzen direnean, lehiaketaren jardura-profilera erlatibizatuta egiten direnean baino. Zehazki, izugarritzko igoera eman zen (Cohenen $d > 2.0$, 5ekoa den balio kualitatiboarekin adierazia)

entrenamendu-partida (PE) formatuentzat PLmin aldagairako DL vs ML eta MC vs ML demarkazioetan; joko murriztu handien (JRL) formatuentzat PLmin aldagairako DC vs DEL, DEL vs ML, DL vs ML, eta MC vs ML demarkazioetan; eta baita ere, joko murriztu ertainen (JRM) formatuentzat PLmin aldagairako DC vs ML, DL vs ML eta MC vs ML demarkazioetan, eta joko murriztu txikien (JRP) formatuentzat PLmin aldagairako DC vs ML, DEL vs ML, DL vs ML, eta MC vs ML demarkazioetan. Halaber, izugarritzko murrizketa eman zen (*Cohenen* $d > 2.0$, -5ekoa den balio kualitatiboarekin adierazia) JRP formatuan DTmin aldagairako DC, DEL eta DL demarkazioetan MLe kin alderatzean.

Azkenik, termino erlatibo ei dagokienez, diferentzia esanguratsuak bakarrik tarteko formatuentzat (JRL eta JRM) aurkitu ditugu. Nabarmentzen diren diferentzia esanguratsu horiek hauek dira: % DT aldagairako DC vs ML, eta DEL vs ML demarkazioetan (bi formatuetarako); JRL formatuan DL vs ML demarkazioetan, eta JRM formatuan MC vs MLetan.

9. taula

Cohenen d efektuaren tamaina (Cohenen d), errore estandarra (EE), beheko muga (BM) eta goiko muga (GM) entrenamendu-zereginen arabera bereizitako demarkazioen arteko konparazioan.

Zeregin	Demarkazioa	Aldagaia	Absolutu (min) [<i>d de Cohen</i> + EE (BM/GM)]	BK	Erlatibo (%) [<i>d de Cohen</i> + EE(BM/GM)]	BK
PE	DCvsDEL	DT	-0.20 ±0.55 (-1.10/0.71)	0	0.11 ±0.55 (-0.79/1.02)	1
	DCvsDEL	PL	0.88 ±0.57 (-0.04/1.81)	3	-0.26 ±0.55 (-1.16/0.65)	-1
	DCvsDL	DT	0.51 ±0.62 (-0.51/1.53)	2	-0.31 ±0.62 (-1.32/0.70)	-1
	DCvsDL	PL	-0.44 ±0.62 (-1.46/0.57)	-1	-1.13 ±0.65 (-2.20/-0.06)	-2
	DCvsMC	DT	-0.69 ±0.59 (-1.66/0.28)	-2	-0.30 ±0.58 (-1.25/0.65)	-1
	DCvsMC	PL	0.24 ±0.58 (-0.71/1.19)	2	-1.06 ±0.61 (-2.06/-0.07)	-2
	DCvsML	DT	-2.46 ±0.94 (-4.00/-0.93)	-4	0.61 ±0.72 (-0.57/1.80)	3
	DCvsML	PL	4.07 ±1.24 (2.04/6.10)	4	-0.11 ±0.71 (-1.27/1.05)	0
	DELvsDL	DT	0.84 ±0.44 (0.12/1.56)	3	-0.37 ±0.42 (-1.07/0.33)	-1
	DELvsDL	PL	-1.24 ±0.45 (-1.98/-0.49)	-3	-0.86 ±0.44 (-1.58/-0.15)	-2
	DELvsMC	DT	-0.71 ±0.38 (-1.33/-0.09)	-2	-0.36 ±0.37 (-0.97/0.25)	-1
	DELvsMC	PL	-0.64 ±0.38 (-1.26/-0.03)	-2	-0.80 ±0.38 (-1.43/-0.18)	-2

	DELvsML	DT	-2.60 ±0.67 (-3.70/-1.50)	-4	0.34 ±0.55 (-0.57/1.25)	2
	DELvsML	PL	1.89 ±0.62 (0.88/2.90)	4	0.20 ±0.55 (-0.70/1.11)	2
	DLvsMC	DT	-1.26 ±0.50 (-2.08/-0.44)	-3	-0.01 ±0.46 (-0.76/0.74)	0
	DLvsMC	PL	0.64 ±0.47 (-0.12/1.41)	3	0.04 ±0.46 (-0.70/0.79)	1
	DLvsML	DT	-3.91 ±1.01 (-5.56/-2.26)	-4	1.01 ±0.65 (-0.05/2.07)	3
	DLvsML	PL	5.32 ±1.25 (3.28/7.36)	5	1.30 ±0.67 (0.21/2.40)	4
	MCvsML	DT	-1.53 ±0.64 (-2.58/-0.48)	-3	0.94 ±0.60 (-0.05/1.92)	3
	MCvsML	PL	3.28 ±0.82 (1.94/4.62)	5	1.21 ±0.62 (0.20/2.22)	4
<hr/>						
	DCvsDEL	DT	-0.48 ±0.63 (-1.50/0.55)	-1	-0.44 ±0.62 (-1.46/0.59)	-1
	DCvsDEL	PL	2.22 ±0.71 (1.06/3.38)	5	1.29 ±0.65 (0.22/2.35)	4
	DCvsDL	DT	0.20 ±0.69 (-0.93/1.34)	2	-0.74 ±0.71 (-1.90/0.43)	-2
	DCvsDL	PL	0.80 ±0.71 (-0.37/1.97)	3	0.12 ±0.69 (-1.01/1.25)	1
	DCvsMC	DT	-0.36 ±0.68 (-1.48/0.76)	-1	-0.62 ±0.69 (-1.75/0.51)	-2
	DCvsMC	PL	2.25 ±0.83 (0.89/3.62)	5	0.97 ±0.71 (-0.19/2.13)	3
	DCvsML	DT	-1.90 ±0.87 (-3.32/-0.47)	-3	0.52 ±0.74 (-0.69/1.74)	2
	DCvsML	PL	9.46 ±2.48 (5.40/13.52)	5	2.45 ±0.95 (0.89/4.01)	5
	DELvsDL	DT	1.12 ±0.47 (0.35/1.89)	3	-0.53 ±0.45 (-1.27/0.20)	-1
JRL	DELvsDL	PL	-1.17 ±0.47 (-1.94/-0.40)	-2	-0.82 ±0.46 (-1.57/-0.07)	-2
	DELvsMC	DT	-0.08 ±0.42 (-0.77/0.61)	0	-0.35 ±0.42 (-1.05/0.35)	-1
	DELvsMC	PL	-0.25 ±0.42 (-0.94/0.45)	-1	-0.15 ±0.42 (-0.85/0.54)	0
	DELvsML	DT	-2.32 ±0.60 (-3.31/-1.33)	-4	2.03 ±0.58 (1.08/2.99)	5
	DELvsML	PL	2.73 ±0.64 (1.68/3.77)	5	0.54 ±0.51 (-0.30/1.37)	2
	DLvsMC	DT	-0.76 ±0.54 (-1.64/0.12)	-2	0.03 ±0.52 (-0.82/0.88)	1
	DLvsMC	PL	1.02 ±0.55 (0.12/1.93)	3	0.64 ±0.53 (-0.23/1.51)	3
	DLvsML	DT	-2.36 ±0.76 (-3.61/-1.12)	-4	2.56 ±0.79 (1.28/3.85)	5
	DLvsML	PL	4.51 ±1.09 (2.72/6.30)	5	1.35 ±0.65 (0.29/2.41)	4
	MCvsML	DT	-1.34 ±0.63 (-2.37/-0.31)	-3	1.63 ±0.65 (0.56/2.70)	4

	MCvsML	PL	3.54 ±0.90 (2.06/5.01)	5	0.65 ±0.58 (-0.31/1.61)	3	
	DCvsDEL	DT	-0.25 ±0.78 (-1.52/1.03)	-1	0.49 ±0.78 (-0.79/1.77)	2	
	DCvsDEL	PL	1.15 ±0.81 (-0.18/2.47)	3	0.06 ±0.77 (-1.21/1.33)	1	
	DCvsDL	DT	0.16 ±0.87 (-1.27/1.58)	1	0.36 ±0.87 (-1.07/1.79)	2	
	DCvsDL	PL	0.79 ±0.90 (-0.67/2.26)	3	-0.29 ±0.87 (-1.72/1.13)	-1	
	DCvsMC	DT	-1.00 ±0.91 (-2.50/0.49)	-2	-0.97 ±0.91 (-2.47/0.52)	-2	
	DCvsMC	PL	1.10 ±0.92 (-0.42/2.61)	3	-3.29 ±1.28 (-5.39/-1.18)	-4	
	DCvsML	DT	-1.42 ±1.12 (-3.25/0.42)	-3	3.91 ±1.71 (1.11/6.71)	5	
	DCvsML	PL	9.44 ±3.49 (3.73/15.16)	5	-1.24 ±1.09 (-3.03/0.55)	-3	
JRM	DELvsDL	DT	0.55 ±0.60 (-0.44/1.53)	2	-0.03 ±0.59 (-1.00/0.94)	0	
	DELvsDL	PL	-0.67 ±0.61 (-1.67/0.32)	-2	-0.25 ±0.59 (-1.22/0.73)	-1	
	DELvsMC	DT	-1.16 ±0.63 (-2.19/-0.13)	-2	-1.26 ±0.64 (-2.31/-0.22)	-3	
